

Arrasate

P R E S S

1999ko
Otsailak 12
439. zenb.



189 **bomba**

IKUSPEGIA: J. M. VELEZ DE MENDIZABAL • EUREN IKUSPUNTUTIK: BEGO ZUBIA
KULTURA ELKARRIZKETA: N. MAIZTEGI • KIROL ELKARRIZKETA: GORKA ERREKALDI

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51

ARETXABAETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55

ARETXABAETA

Nazionalismo desberdinak

Arestian Javier Sadaba filosofoari *Euskonews* aldizkari elektronikora-ko elkarrizketa bat egiteko aukera izan dut, astindu eder bat eman diegularik gure gizartea gehien kezkatzen dituen arazoei. Benetan interesgarria iruditu zait, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Filosofia eta Etikako katedradunaren iritzi-jarioa, distantzia fisi-koak eskaintako ikuspegi zabaletik mezu lasaia luzatzen baitu, gurekiko hainbat instantziatan antzeman dai-keekin giro ozpindu interesatutik urrun.



J. M. Velez de Mendizabal

hertsienean ez erortzeko. Elkar truke izpirituala, maizago praktikatu beharko litzatekeelakoan nauzue, gizartearen garapen orekatua errealitate bihurtarazteko. Sadabaren heziketa eta agian baita Euskal Herriaren balizko bilakaerari buruzko bere planteamendua bera ere ez datoz nireekin bat. Baina, hain zuzen ere, horrexegatik da interesgarria iritzien

konparaketa, autoelikapen suntsitzailean gal ez gaitezen.

Baina, noan harira, Sadabarekin izandako elkarrizketa luzetik hona alda-tu nahi ditudan azalpenak, europar nazionalismoei dagozkienak dira, horiekien gauzatzen duen sailkapena azpimarratuz. Hiru multzotan banatzen ditu:

- Gellner soziologoari jarraiki, klasifikapen honetan lehenen agertzen direnak gaur eguneko Estatu-Nazioaren eskema defendatzen dutenak dira, besteak beste, Frantzia eta Espainiako kasuak. Horrexegatik, dio Sadabak, hankasartze barregarria da, naziona-

lismo periferikoak aztertu nahi izatean Gellnerengana jotzea, azterketa hori zentralismo azpiratzailearen nazionalismo itsuaren abstrakzioetik egiten baita.

- Nazionalismoaren keria guztiak biltzen dituztenak, eta bigarren multzo honetan Sadabak serbiar nazionalismoa aipatzen du adibide gisa, tribalismo eta etnizismoaren islapen arrisksua, alegia.

- Autodeterminazioaren eskubide naturala defendatuz, Estatu-Nazioaren zurrunkeria salatzen dutenak, ezelako inperio-asmorik gabe eta egiazko nazioartekotasun baten aldarrika-penetik.

Hainbat aldiz salatu dudan eraso zentralistaren aurrean —ez dezatela esan, arren, frentismo mediatikorik ez dagoenik!— askoz lasaia geratu naiz Sadabaren ikuspuntuaz jabetzean, beti defendatu baitut nazionalismoek ez dutela, berez, baztertzailak izan behar. Estatuak, ordea, azpikeria eta bazterkeriarako joera nabariagoa erakutsi dute historian zehar, eta oraingo kasuan ere begi bistan dago bide horretatik jarraitzen dutela, guri gehien interesa-tzen zaizkigunei dagokienez, bederen. ■

Hainbat gairen artean, nazionalismoei buruz galdegin nion, horiei egotzi ohi zaien baztertzaila izatezko akatsa egiazkoa ote den edo —aitzitik eta hainbat bider bezala— burmuin okerrarazle batzuen joko zikinari zor zaion. Nor beraren iritziak, noizik behin besteekin alderatzea ariketa osasuntsutzat daukat, inobilismorik

Ez dezatela esan frentismo mediatikorik ez dagoenik!

“Aretxabaletak, Arrasatek, Bergarak, Eskoriatzak eta Oñatik garapen eredu bikaina eskaintzen dute, Gipuzkoako beste eskualde batzuekin alderatuz gero”

Javier Moreno

2.517.121

pta. adierazi zuten batz beste arrasatearrek 97an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hazienda Sailak egin duen azterketa baten arabera, 1997an errentaren adierazpe-na egin zuten arrasatearrek 2.517.121 pta adierazi zituzten batezbeste. Arrasatearren batezbesteko diru sarrerak, berriz, 1.110.275 pta.koak izan ziren.

ITURRI ONETIK

LKSren azken umea

“Gutxi baginen amona umedun” esango du baten batek Olandixo inguruan. Izan ere, martxoaren letik aurrera, LKSk handitu egingo du familia. Orain arte Ingeniari-tza, Aholkularitza, Kontu Ikuskaritza eta Tasazioak zituen.

Negoio berriak LKS Intelcom izango du izena. Komun-ikazioetan egingo du lan eta era guztietako baliabideak erabiliko ditu (telefonoa, zuntz optikoa, kablea...) edo-zein bi puntu lotu ahal izateko. Hortik Intelcom izena.

Kapitalaren %70 LKSk jarriko du, %20 Enycak (MCC taldeko enpresa bat, Santanderren dagoena) eta %10 MCCk. Hamar lagun hasiko dira lanean enpresa berrian, lau Aretxabaletako industrialdean eta sei Santanderren.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Jose Aranzabal. Kazetariak: Manjio Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. Publizitatea: Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). Administrazioa: Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26) Diseinua: Txos Azurmendi. Astoburuetak berrie-mailea: Gontzal Landa. Bekaduna: Anartz Agirre. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sai-la, Iker Barandiaran, Kamele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jasone Men-dizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4854. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-zen alidizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Manjio Deogracias & Txos Azurmendi.

Arrasateko Udaleren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 12**
 • Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Larunbata, 13**
 • Gaeuz eta egunez: Korquera, Musakola
- Igandea, 14**
 • Gaeuz eta egunez: Irizar, Erquin
- Astehena 15**
 • Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Astearteak, 16**
 • Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 17**
 • Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Osteguna, 18**
 • Gaeuz eta egunez: Morales, S. Andres

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguatorialdea 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

GELMAN KALERATZERIK EZ!

Urte asko igaro ditu langileriak borrokan bere bizi baldintzak hobetzeko ahaleginetan, baina azken urteotan atzera goazela somatzen dugu.

Aspaldi, ugazaba herriko plazara joaten zen, soldata mixerable baten truke bereztat lan egingo zuen edonoren bila. Orain aldi baterako lan enpresen bitartez eta gazte kopuru handi baten soldata bereizkeriari esker lortzen du.

Aspaldi, langileak egunak argitzen zuenetik gauera arte lan egin behar izaten zuen bizi ahal izateko. Orain bizkortu egiten dizkigute lan erritmoak eta lan jarduera luzatu, zenbait kasutan (gugandik ez hain urruti, gainera) 12 orduz ere iritsiz.

XXI mendearen atarian gauden arren, langileen osasuna okertuz doa eta milaka pertsona hiltzen dira beren lanpostuetan edo elbarrituta gertatzen dira.

Hala ere, gaur egungo zapalkuntza egoerari ez zaio aurre egiten 60. eta 70. hamarkadetan ohikoa zen erradikalitasun eta gogortasun harekin. Krisi ekonomikoak eragin handia izan du langileen kontzientzian. "Kontuz—esaten du ugazabak—, zure lanpostua kolokan dago eta". Eta, beldurraren poderioz, langileek pentsatzen dute ez ote den hobe geldirik egotea, bakoitzak bereari eustea.

Honela, ostrukarena eginez, askok burua makurtu eta lanean segitzen dute.

Baina *Papik* ez du hori egin. *Papik* oraindik zera uste du: merezi duela bakoitzak pixkat egitea laneko denon sufrimendua gutxitzeko, hain zapalduak ez izateko, enpresarioek beren patriketan ez baina langileen sakeletan gehiago pentsa dezaten, hauek baitira euren bizitzaren herena edo gehiago lanean igarotzen dutenak, ugazaben negozioak borobilduz.

Izan ere, Gelmako negozioak, adibidez, azken hiru urteotan 2.000 milioi pta inguruko etekinak izan ditu. Lan sariak, noski, ez dute horrelako igoerarik usaindu ere egin. Aldi baterako lan enpresen lanaz baliatzen da lan berdina kostu txikiagorekin egiteko.

Papik beti salatu izan ditu gertakizun hauek. Gainera, hauteskunde sindikaletarako zerrendaburu zen kandidatura batean. Patronala ez zegoen horretarako prest eta *Papik* kale gorrian ipini du. Kandidaturak aurkezteko epea hasi aurretik kaleratu dute, aurkez zedin eragozteko.

Zoritxarrez, enpresak izan du laguntzailerik lan honetan, langileen arteko laguntzaileak hain zuzen ere. Hauek buru-belarri aritu dira *Papik* lortutako hautesleek izena eman ez zezaten edo eman ondoren ere zerrendatik kentzeko.

Gauzak horrela, garrantzizkoa deritzogu batasuna

berreskuratzeari, gaur ere batasuna beharrezkoa delako. Beharrezkoa geure indarrean konfiantza hartzeko.

Gizabanakoaren borroka premiazkoa da, zeren eta arrazoiaren indarra ez baitago kopuruaren arabera. Ondo dago norbera inplikatzeko, justiziak ez baitu zenbakiez ulertzen. Baina indartsu egiten gaituena eta gauzak aldatzea ahalbideratuko duena guztion batasuna da, guztion ahaleginen batasuna. Horregatik aldarrikatzen dugu.

Indarkeriari eta naguskeriari nahikoa dela esateko ordua da. Diktadorea hil zen, baina morroi onak utzi zituen.

Garaia heldu da naguskeriaren zutabeak hankaz gora ipintzeko eta gure duintasuna defenditzeko. Hau, behintzat, ezingo digute lapurtu.

Kaleratze hau ez da kasualitatea, patronalaren estrategiari erantzuten dio. Honek ez du disidentziarik nahi, bere asmoak modu erosoan egin nahi ditu eta.

Horregatik zuen elkartasuna eskatzen dugu. Gaur *Papiri* tokatu zaio, baina bihar gutariko edozein izan daiteke.

Kaleratzearen aurkako sinadurak biltzen hasi gara. Bilketan parte har ezazuela eskatzen dizuegu eta adi egon zaitezela datozen egunetan egindako proposamenen aurrean.

Ez, ez, ez, kaleratzerik ez!

Juan Ramon Garai
 ESK

Sili Sili

%50eko beherapenak

Obrak direla eta, Ferrerías kaleko 28. ean gaude

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Ospatzen duzu San Valentín eguna?

Otsailaren 14an, igande honetan, maiteminduen eguna izango da.



Maite Mendizabal
(12 urte)
Ikaslea

Ez, ez zait egun hori gustatzen. Montaje bat iruditzen zait.



Arrate Kortazar
(27 urte)
Langile

Gehienetan ez dugu ospatzen. Ez dakit zergatik, ohitura falta edo igual.



Maialen Fdz. de Arroiabe
(15 urte)
Ikaslea

Ez, horretarako nobioa eduki behar da. Edukiko banu, seguru aski ospatuko nuke.



Emilio de Campo
(49 urte)
Langabea

Ez, ez dut San Valentín eguna ospatzeko ohiturarik.



Iban Arana
(41 urte)
Langile

Ez dut sekula ospatu San Valentín eguna. Maiteminduen eguna ospatu nahi baduzu, beste edozein egun ere aproposa izan daiteke.



Pedro Abad
(37 urte)
Langile

Ez dut zeinekin ospaturik. Edonola ere, gustatzen zait egun hori.



Francis Silonis
(25 urte)
Ikaslea

Ez, ez dut San Valentín eguna ospatzen. Oso merkantilista iruditzen zait egun hori.



Loida Martinez
(22 urte)
Langile

Ez dut San Valentín eguna ospatzeko ohiturarik. Ez dut oso gogoko.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI

TRATAMENDUAK:

**MEDIKUNTZA
ERREUMATOLOGIA
MASAJEAK**

- Minak
- Giharrak
- Zainak
- Hezurak

Olarte, 43 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 01

BENGOA

Lurrindegia • Bitxitegia
Opariak

SALGAI

Zerkaosteta, 5
Tel.: 943 79 28 85

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak.


FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak segitzen dute.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 12

Elurra 500 m.tik gora egingo du. Inguruoetan, berriz, izotza egingo du lehen orduetan. Euria ere izango dugu.



LARUNBATA 13

Haizea ipar-ekialdetik joko du. Hori dela eta, tenperatura hotzagoa izango dugu. Dena den, euria gutxiago egingo du.



IGANDEA 14

Larunbatekoaren antzerakoa. Eguraldi hotza, baina lehorra.

Ilargia



Ilberria

Otsailaren 16an, asteartean, gau iluna izango dugu, ilberri izango da eta.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)


Igandean

10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila %99



Urteurrena


Orain dela urtebete Arrasate Pressen:

- Eduardo Mancebo "Portu" hil zen otsailaren 7an.
- Trafiko arazoak, kamioilarien grebak eraginda.
- Anbulatorioan mobilizazioak egin ziren bi langile kaleraturen alde.
- Aukea Sariak: Xabier Mentxaka, Matilde Garai eta Arrasate Txirindulari Elkarte.

*Abenduan milaka eguzki...
... otsailean milaka ordu*

Lanordu bat akordioaren alde

Otsailean ere, eutsi egizu zure konpromisoari



euskarari

12

ostirala

■ ZINEA

Estado de sitio, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

■ INAUTERI EMANALDIA

Arrasate Musikalek inauterietako kontzertua eskainiko du Arrasate Musikaleko areto nagusian. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Gollum Friends Bartzelonako taldeak kontzertua eskainiko du Gaztetxean. Mestizaje basatia dute abiapuntutzat, *hip-hop* eta musika latinoak nahastuz, besteak beste. Kataluniarrekin batera, *Gospel Killers* mondragoetarrak ere izango dira. Kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da.

13

larunbata

■ ZINEA

Estado de sitio, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ ESKI IRTEERA

Besaidek Palentziako Carrionera antolatu duen eski zeharkaldia, goizeko 05:00etan aterako da Garibai kaletik.

■ LOURVIER'S

Lourvier's story saioa eskainiko dute Lourvier's taldeak Amaia antzokian. Ekitaldia gaueko 22:30etan izango da. Sarrera, 1.000 pta.

14

igandea

■ ZINEA

Estado de sitio, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ HARATUZTEAK

18:00etatik 19:00etara Eguzki taldearekin dantzaldia herriko plazan.

■ INAUTERIAK
AL ANDALUSEN

Andaluziar elkarteak inauteriak direla eta, 19:30etan, Juan Cohones txirigota aurkeztuko dute eta 23:00etan, Al Andalus elkartearen III. lehiaketa.

■ ATHLETIC IKUSTERA

Imanol taldeak Bilbora bidaiatuko du Athleticen eta Extremadurak jokatu duen norgehiagoka ikustera. Autobusa 15:00etan aterako da Abaroa aurrealdetik.

15

astelehena

■ ZINEA

Estado de sitio, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

16

asteartea

■ ZINEA

Estado de sitio, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

■ HARATUZTEAK

17:00etan txikientzako Trokolo taldeko pailazoan emanaldia, Sebero Altube plazan. Ordu berean Samasiku txarangaren kalejira aterako da. 18:00etan, Auskalo taldearekin kale animazioa, herriko plazan. 19:00etan Arrasateko erraldoi eta kilikien kalejira.

HARATUZTEETAN ONDO PASATZEKO...



Iturriotz, 12 • ARRASATE

Euskarazko komunikabide batek KOMERTZIALAK

behar ditu, publizitate salmentan aritzeko DEBA GARAIAn.

ESKAINIKO DA:

- Lan kontratua epe luzerako.
- Soldata finkoa + komisioa.

BALORATUKO DA:

- Eskarmentua antzeko lanetan
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia
- Eskualdean bizitzea

Ezinbestekoa autoa edukitzea.

Interesatuok deitu 943 - 300222 telefonora
otsailaren 19 arte.

20:00etatik 21:00ak arte, Kiñu taldearekin dantzaldia, herriko plazan. 22:30etan berriz ere ekingo diote dantzaldiari. 23:30etan Sardinaren hileta. Segizioak erdialdeko kaleak ibili ondoren, herriko plazan bukatuko da desfilea, sardina hantxe erretzeko.

17 asteazkena

■ UDALPE ELKARTEA

Udalpe elkarteak urteko batzar orokorra egingo du, 18:30etan, elkartean bertan.

■ AISIALDIRAKO ZUZENDARIAK

Txatxilipurdik aisialdirako zuzendari ikastaroa antolatu du. 21 urte betetik izatea eta begirale titulua eskatzen da. Matrikula epea otsailaren 26an amaituko da. Berri gehiago 943 79 54 46 edo 943 77 17 39an.

■ ESKI IRTEERA

Besaideren eski taldeak eski irteera antolatu du San Josef zubirako. Informazioa eta izen ematea Besaideko egoitzan astelehen, astearte eta asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara edo 943 79 84 74 zenbakian.

■ IGERILEKUAK ITXITA

Eusko Jaurlaritzaren araudiaren arabera egin behar diren lanak direla eta, otsailaren 14a arte igerilekuak itxita egongo dira.

■ UDAL ZERGAK

Udal zergak ordaintzeko laguntza eskaerak aurkezteko epea irekita dago. Eskaerak Udaleko Gizarte Zerbitzuan aurkeztu behar dira apirilaren 6a baino lehen.

■ DIRU LAGUNTZAK EMAKUMEEI

Arrasateko Udalak diru laguntzak banatu behar ditu gizarte gaiak lantzen dituzten talde eta erakundeen artea, beti ere, Arrasateko herritarrek parte hartzen baldin badute. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 26an amaituko da. Eskaera eredia eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa Udaletxeko Gizarte Zerbitzura eraman behar dira.

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

Haratuzte alai opa die bere bezeroei.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

ARROGOI TABERNA

Ondo para Inauterietan!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 943 79 20 52
ARRASATE



EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

USTEAK USTE

Elur urte,
urte ona

Gezurra dirudi hizkuntza guzti-
ek duten piperra
antzeko gauzak esamolde berezien bidez esateko. Eskola Politeknikoan irakasten nuen garaian "Ezkur urte, elur urte" idatzi nuen behin irakasleen gelako arbelean. Joaquin Rodriguezek erakutsi zidan orduan gaztelaniaz badela antza handia duen beste bat: "Año de bellotas, nieve hasta las pelotas". Ezkurak ikusten ditudanean beti gogoratzen naiz Joaquinez eta barre egiten dut.

Joan den asteazkenean, oster, barre gutxi egin nuen kateak ipini eta Kanpanzar gora Arrasaterantz abiatu nintzenean. Elurra mara-mara ari zuen eta bidea esnea baino zuriago. Jaieguna balitz, pozik ibiliko nintzateke alabarekin jolasean, baina lanegunetan besterik da.

Eskola umeei bost axola hori eta ondo egiten dute. Horrelako egunak, geroz eta urriagoak, aprobeztatu beharrekoak izaten dira, gerora ere ondo zizelkatuta gelditzen baitira oroiemenean.

"Elur-melur, ez nauk hire beldur, etxean badiat nahiko arto eta egur". Ondo pasau.

Joxe Aranzabal



Egin dugula Gara

* Bego Zubia

Egin dugulako gara. Aspaldi honetan maiz errepikatutako leloa da aurreko hau, baina egunero kioskoetan eskura daitekeen egunkari berriaren izaera, helburua eta jatorria ulertzeko hiru hitzok baino egokiagorik ezin aurkitu izan dut.

Uztailean, (egun hits hartaz geroztik urteak pasa direla dirudi) Egin itxi zuten berean "Egingo dugu" leloa hartu genuen hantxe lan egiten ari ginenok eta eraso latze-giak jasan zituen egunkari haren parte sentitzen ziren guztiak, irakurleek eta laguntzaileek, alegia.

Euskal Herriaren azken hogeitorteko historia eza-gutzeko ezinbesteko iturri den egunkariari buruz hitz egiten ezingo naiz hemen luzatu, nahiz hura gabe oraingo hau ulertzerik ez dagoen.

Hala ere, emandako hitza beteta, Eginen oinordeko dugu gaurko Gara. Hark zuen onena hartzen saiatu eta momentu-

ko une itxaropentsuei erantzuteko prest kaleratu da Gara.

Lizarr-Garazi akordioa hartu du eredu gisa eta horren inguruan bildu den gehiengo sozialaren nahia islatzen saiatuko da. Egunkari nazionala izan nahi duenez, Euskal Herria da bere erreferentzi puntua. Ondorioz, Euskal Herria eta Mundua sailetan jasotzen dira politika eta gizarte gaiek eman ditzaketen berri guztiak.

Horretaz aparte, kultura, kirolak, iritzia, zerbitzuak, hots, erosterakoan irakurleek egunkariari eskatzen dioten guztia jasotzen du, edo jaso nahi du behintzat, nahiz eta oraindik eskainiko duen

“
Lizarr-Garazi akordioa hartu du eredu gisa eta gehiengoaren nahia islatzen saiatuko da
”

guztia ez dien bere irakurleei erakutsi.

Bere eskaintza osatzen joango da ondorengo asteetan eta irakurleek esan behar dute sortutako espektatibak eta egindako ahaleginak (ezin ahaztuko dut Gara kale-ratzea hiritar eta hiritar askoren esfortzuak egin duela posible) asetzen dituen edo ez.

Lerro hauetatik gauza bat behintzat argi esan dezaket, egunero egunero Gara egiten dugunok ilusiorik handienarekin hartu dugula eskuartean jarri zaigun eronka.

Eginen hartutako espezialitatea proiektu berri honetan gauzatzen ahaleginduko gara eta hori errealitate bihurtu ahal izateko eskuartean jarritako baliabideei emaitzarik onenak ateratzen saiatuko gara.

Gara Euskal Herriak behar-beharrezko duen tresna da, lehenago Egin eta ondoren Euskadi Informacion izan ziren bezala. Gara beharrezko tresna da Euskal Herriaren nahiz atzerriari jasotzen direnak hemengo ikuspegitik ezagutu nahi duenarentzat, behar bada ez bakarria, baina bai beharrezkoa.

* Gara egunkariako kazetaria.

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE


ARETXABALETA

1 Zabor guneak aldatuta

Herrian egiten ari diren lanen ondorioz, aldaketa ugari jasaten ari dira herritarrak. Hone-la, lanak egiten diren bitartean ezin izango dira erabili zaborra biltzeko ohiko guneak. Gune horietatik hurbilen dauden lekuetan utzi behar-kodituzte zaborrak. Bestetik, Autobus geltoki bakarra dago orain herrian. Izan ere, Portasol auzokoa eta Errekabareneko geltokiak ezin dira erabili. Beraz, autobus geltoki bakarra dago, plazakoa. Azkenik, pasa den asteleh-netik aurrera, azoka Gipuz-koa plazara pasatu da.

2 ESKORIATZA Inaute jaiak

Atzoko ospakizunekin hasi dira inauteriak Eskoriatzan. Gaurkoan, kalejira eta mozo-rra lehiaketaren ostean, "Gau-bela" taldeak izango du gaue-ko dantzaldiaren ardura. Eta asteartean, egun handian, arratsaldeko 17:00etan hasiko da jaiak, Kukumarroen irteerare-kin. Ondoren, 18:00etan, Esko-riatzako banda mozarrotuekin



batera irtengo da kalejiran. Eta jaiak eta eguna bukatzeko, "Herri Inauteria" izango da iluntzeko 19:00etatik aurrera. Inauterietako dantza ikasi nahi duenak, astelehenean du auke-rra, arratsaldeko 20:00etan, pilotalekuan.

3 ANTZUOLA Inauteriak

Igandea izango da karnabalen egun handia Antzuolan. Goiz-ean herriko andra eta mutil lagun taldeak kalejiran ibili-ko dira, Oinarin dantza talde-

arekin batera. Ondoren, eguer-diko 12:30etan, dantza era-kusketa izango da herriko pla-zan. Andrek Iparraldeko Makil-Txiki dantza egingo dute eta mutilek Sorgin Dan-tza, betiko hartz, hezitzaile eta tximinoarekin. Bazkari ordua arte fanfarrea ibiliko da kale-ak alaitzen. Arratsaldean, berriz, Gesalaga trikitilarien txanda izango da.

Asteburuan zehar, berriz, txotxongilo erakusketa izan-go da osoko bilkura aretoan. Euskal Herriko mozarroekin jantziko dituzte.

Era berean, inauteriak dire-la eta, Gipuzkoako futbol le-hiaketek atsedean hartzen dute. Honela, errejional mailako taldeek eta kadeteek ez dute partidarik jokatu.

4 ELGETA Matrikulazioa

Gaur izan da 1996. urteko haurrak Herri Eskolan matri-kulatzeko azken eguna. Dena dela, despistaturen bat ego-nez gero, datorren astean ere izango du haurra matrikula-tzeko aukera. Eraman beha-rrekoak, hauek: erroldako ziurtagiria, familia liburua eta bi argazki.

BAKAILOETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailaoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07

JAI ZALE TABERNA

- Ogitartekoak • Infusio naturalak eta...
- Pintxoak

MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE

OKORETEGI

Aupa Inauteriak!!

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

Jaiotzak

- Maria Terrazas Curto. Urtarrilaren 13an.
- Eduardo Veracruz Bujanda Sánchez. Urtarrilaren 14an.
- Ainhoa Carrascosa González. Urtarrilaren 25ean.
- Leire Aucin Cuevas. Urtarrilaren 27an.
- Ane Remiro Otamendi. Urtarrilaren 29an.
- Iraide Villaescusa Argibai. Otsailaren 6an.
- Maider García Palomero. Otsailaren 7an.

Ezkontzak

- Carlos Fernandez de Gacelo Garraza eta Beatriz Urkiola Mondragon. Otsailaren 6an. Zibilez.
- Aitor Arsuaga Mendiartx eta Miren Itziar Aranburu Martinez. Otsailaren 6an. Zibilez.

Heriotzak

- Consuelo Fernández Velez. Otsailaren 3an.

Gasarekin bueltaka

Ertzaintzak jakinarazi duenez, oraindik ere gas instalazioen azterketekin iruzur dexente egiten ari dira. Pasa den asteburuan 20 bat kexa jaso zituzten Arrasateko ertzaindegian. Adierazi digutenez, gasaren ikuskatzaileek oso modu arraroan egiten dituzte azterketak. Telefonoz dei ote dezaketen galdetzen diete etxekoei eta bost minutu baino ez dute egiten etxean, prisa dutela eta alde egin beharra dutela esaten baitute. Hala eta guztiz ere, tartetxo horretan, azterketa antzeko bat egin eta 6.496 pezeta kobratzen omen dute.

Beraz, gas ikusketekin kontuz ibiltzeko abisua egin du Ertzaintzak.



Bidaia bat irabazi izandako aitzakiarekin, jabego anitzeko etxebizitza baten erosketan sartzen ari dira jendea.

Jabego anitzarekin iruzurretan

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak arrasatearrak ohartarazi nahi ditu jabego anitzaren inguruan. Dirudenez, herritar mordo batek telefono deiak jaso ditu datozen berrogeita hamar urteetan astebeteko oporraldi paregabeaz gozatzeko aukera eskainiz. Baina telefono dei horiek bezero berriak lortzeko trikimailua baino ez omen dira, jabego anitzeko etxebizitza baten erosketan sar daitezen.

Askotan, gainera, bezeroek ez dute atzera egiterik, erreklamazio epea pasatu egin zaielakoan. Hori dela eta, jendea erotuta dabil, arazoa konpondu ezinik.

ARRASATEARREN SALAKETAK

EKAk jakinarazi duenez, era

honetako makina bat salaketa jaso dituzte egunotan, tartean zenbait arrasatearrena. Bi milioi pezetako iruzurrak jasan omen ditu jendeak.

Orain arte jabego anitzaren gaineko legeak ez zuen gauza handiegirik zehazten. Baina iazko abendutik hona, gauzak argi eta garbi lagatzen dituen lege berria dago. Honen arabera, mota honetako jabegoa saltzen dabiltzan enpresak derri gorrezko informazio orokorra eman behar dio kontsumitzaileari: salneurria, zer erosten den, jabegoaren izaera eta antzeko datuekin. Salerosketaren ezaugarriak ere argi eta garbi agertu beharko dira sinatzen den kontratuan.

Honetaz gain, kontsumitzaileak hamar eguneko epea

du kontratua deusezteko, inolako arrazoirik eman beharrik gabe. Kontratua ezeztatu nahi izanez gero, egokiena da jakinarazpena telegrama bidez bidaltzea dagokion enpresari, norberak jakinarazpenaren kopia bat gordez. Gainera, kontratuan legeak adierazten duen gutxieneko informazioa agertzen ez bada, herritarrek, hiru hilabeteko epea du arazoa konpontzeko.

Beraz, hau guztia jakinda, kontuz hemendik aurrera zer sinatzen den. Hobe da alde aurretiko ordainketarik ez egitea eta agintze biletarik edo letrarik ez sinatzea. Ezta mailegutza kontraturik ere. Dena ongi irakurri eta zalantza guztiak argitu. Eta mota honetako kontraturen bat sinatuz gero, kopia bat eskatu etxean ondo irakurtzeko.

Udal-Zergak

Udal Zergak ordaintzeko laguntza eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Eskaerak udalaren Gizarte Zerbitzu batzordean aurkeztu beharko dira, otsailaren 1etik apirilaren 6a bitartean.

Diru laguntzak

Arrasateko Udalak diru laguntzak banatu behar ditu gizarte gaiak lantzen dituzten talde eta erakundeen artean, beti ere Arrasateko herritarrek parte hartzen badute. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 26an bukatzen da. Eskaera eredu eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa Gizarte Zerbitzu batzordean jaso daiteke.

14.500 Pta.



**Titaniozkoa
Urperagarria 100 m.**

22.000 Pta.



**Eco-Drive
(argiarekin dabil)
Kronografoa
Alarma bikoitza**

15.900 Pta.



**Kronografoa
Alarma bikoitza**

15.900 Pta.



**Kronografoa
Alarma bikoitza**

10.900 Pta.



**Automatikoa
Egutegia**

12.500 Pta.



Urrez xafastatua

CITIZEN

Ore felici bikarna



Erdiko kale, 7 • ARRASATE • TEL: 943 79 91 64

*Maitemindu
zaituz!*

3
urteko
bermea

Lourvier's Story



Javier Merino
Lourdes Bedia
Oscar Terol

zuzendaritza: Kike Diaz de Rada

**Amaia
Antzokia**

Otsailak 13, larunbata,
22:30etan

Sarrerak aldeaz aurretik salgai
gaur eta bihar 18:00-20:00
Amaia Antzokiko lehiatilan

Sarrera: 1.000 pta
(Gazte Txartelarekin 800 pta.)



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila

otsailak 13



piztu zeurea!

urte

gaur arratsaldeko 21:30etan saio berezia

Cerrajerako lurren kalitate azterketa

Cerrajera lantegiko lurren kalitatea aztertu egingo da han eraiki behar dituzten etxebizitzak egin baino lehen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Ihobe ingurugiro elkarteak adierazi du beharrezkoa dela jakitea Cerrajerak izandako jarduera industrialak lur horiek kutsatu dituen edo ez.

Modu honetan, zenbait eraikuntzak izaten duten aluminosis edo antzeko gaixotasunak saihestea espero da.

MANKOMUNITATEA LAGUNTZEN

Cerrajerak Mankomunitatearen laguntza izango du azterketa hauek egiteko. Honen enkarguz, hainbat enpresa azterketak egiteko prozedura eta aurrekontua prestatzen ari dira. Azterketa lanak emaitzen arabera adjudikatuko dira.



Eraikuntza batzuk izaten dituzten aluminosis edo antzeko gaitzak saihestsi nahi dute.

Cerrajerako lurak etxebizitzak egiteko kalifikatu zirenean, udalak era honetako azterketa bat egitea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Honek Ihobe-

ren bitartez jakinarazi zuen azterketa beharrezkoa zela. Izan ere, elkarte honek, kutsatutako zolu posibleen zerrenda bat dauka, eta hantxe Cerrajerako

lurak agertzen dira. Dena dela, legeak agintzen duenez, lurren jabeak egin behar ditu. Hori dela eta, UCEMek egingo ditu azterketak.

Elurra

Negu honetan bigarren aldiz izan dugu dama zuriaren bisita. Oraingoan, lehenengo aldian baino oparoago egin zuen, makinatxo bat arazo sortaraziz, batez ere autoan ibili behar izan zirentzat.

Bestela, paraje zuriez gozatzeko aukera paregabea izan genuen. Askorentzat, gaztetxoentzat batik bat, jolastoki ezinobea eskaini zien elurrak.



Sinadura bilketa Gelman

ESK sindikatuak, Pedro Mertzanen kaleratzea salatzeko sinadura bilketa egitea erabaki zuen asteazkenean. Proposamena, ELA, CCOO, LAB, LANKIDEAK eta EILAS sindikatuak ere luzatu zaie.

Juan Ramon Garai, ESKko ordezkariak adierazi digunez, sinadurak herriko enpresa guztietan zein kalean eskatuko dituzte. Dena den, dagoeneko batu dituzte sinadura batzuk, pasa den larunbateko kale agerraldia aprobetxatuz. Sinadura orrian irakur daitezkeenez, Pedro Mertzanen kaleratzea arrazoi sindikalengatik izan da eta ez besterengatik. Hori dela eta, Gelmako zuzendaritzari

kaleratzea bertan behera uzteko eskatzen zaio. Garaik jakinarazi duenez, hamabost egun barru berriro bilduko dira batutako sinadurak zenbatu eta udaletxean mozioa aurkezteko.

ADISKIDETZE AKTUA

Bestalde, pasa den asteartean Pedro Mertzan eta Gelmako zuzendaritzaren adiskidetze aktua izan behar zen Donostiako gizarte epaitegian. Baina, Gelmako zuzendaritza ez zen agertu eta Pedro Mertzan esku hutsik itzuli zen Arrasatera. Izan ere, Gelmako zuzendaritzak abokatuen esku utzi du auzia eta epaiketa egin arte ez du bestelako adierazpenik egin nahi.

astea bi hitzetan

■ Alarma Fagor Climán

Ostegun iluntzean susto galanta hartu zuten Fagor Clima lantegian. Ziklo-pentano gasa zekarren kamioi bat hustutzen ari zirela, gas isurketa atzeman zioten kamioiari. Gas horrek erraz egiten du eztanda. Ondorioz, Babesgo Zibilera deitu zuten Fagorreko arduradunek. Babesgo Zibilak arriskurik ez zegoela ziurtatu arte, badaezpada moztu egin zituen Aretxabaletarako bidea eta saihezbidea. Azkenean, susto hutsean gelditu zen dena.

■ Gomendio liburuská

Udalak herritarrentzako gomendio liburuská bat aurkeztu zuen prentsaurrean pasa den ostiralean. Hiritzinta, lanak, zerbitzuak eta mantenimenduarekin lotu-

tako informazioa dakar liburuská honek.

Ekimen berri honekin arauak betetzeko bidea erraztu nahi die udalak herritarrei. Izan ere, aipatu ditugunak dira kontsulta gehien jasotzen dituzten batzordeak. Liburuská honen bidez zalantza gehienak argitzea espero du udalak. 8.000 ale plazaratu ditu, aste honetan zehar banatzen ari direnak.

■ Korrika batzordea

Arrasateko Korrika batzordea dagoeneko bildu da aurtengo Korrika kulturalaren antolaketakarako. Oraingo 30 talderi pasatu zaie abisua, gerora ere bilera gehiago egiteko asmoarekin. Hementzi urte pasatu dira lehenengoa egin zenetik eta aurtengo Korrikaren 11. aldia egingo da.

■ Jarrai kalean

Pasa den ostiralean kale agerraldia izan zen herrian, Jarrai gazte erakundeak deituta. Gazteriak gaur egun jasaten duen egoera kaskarra (langabezia, etxebizitza lortzeko zailtasunak, Aldi Baterako Enpresak...) salatu nahi izan zuten kalera irten zirenek

■ MCC eta Gamesa

Promoauto Autogintzaren Garapenerako Sozietatea sortu dute MCC eta Gamesa enpresek. Iaz enpresa biek sinatutako lankidetzá hitzarmenaren ondorioz garrantzitsuena da hau. 12.000 milioi pezetako kapitalarekin, Hegoamerikan autogintzako hornitzaile izateko sortu da Promoauto. Juan Mari Uzkudun izango da Promoautoko zuzendaria.



OLANDIXOKO TUNELA

Udalak eta MCCk Takolo eta Garagartza lotuko dituen saihezbideari buruzko aurreproiektu bat finantzatu dute. LKS enpresak egingo du, 18 milioi pezetako aurrekontuarekin. Hiru hilabeteren buruan bukatuta egongo da. Inguru horretako trafikoa, geoteknia, topografia eta egitasmoaren kostua aztertuko dira. Aurreproiektua Donostiara eramango da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean indarra egiteko. Izan ere, bai udalaren zein MCCren ustetan, beharrezkoa da saihezbidea lehenbailehen egitea.



Gero, hamabi urtez geroztik, Leitzañ bizi izan naiz, eta handik ere Gipuzkoa aldera jo nuen. Arrasaten estudiante tunanteñenbilela egin nuen topo euskalki desberdinekin: euskaldun bizkaitarrak, gipuzkoanoak eta 'napar kaxkarrok' (hala izan baikara gu beti giputzentzako), elkarrekin bizitu ginen hiru-lau urtez, eta hagitx aberatsa izandu zen niretzako bizialdi hura euskara kontuan. Eta hantxe, Mondragoñ bertan, piztu zitzaidan neure baitan loxorroan neraman euskara zaletasuna ere”.

PATZIKU PERURENA

Txalaparta letras & ideas
1998ko negua


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikán erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Ipek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Matrikulazio garaia

Otsaila hasi eta batera, Arrasateko eskoletan matrikulatzeko garaia ireki da. Irakaskuntzako lehen mailako txanda izan da.

Arrasaten ikastetxeak bi talde handitan banatuta daude: Hezibideren barruan daudenak, kooperatibistak, (San Viator, San Frantzisko Xabier, Almen eta Umezaintza) eta eskola publikoak: San Andres, Musakola eta Erguingo herri eskolak. Hezibideko ikastoletan urtaririlaren 28tik bilerak egiten ibili dira otsailaren 11 arte. Azken honetan, lau ikastolen bilera izan zen Monterronen. Ikastoletako ordezkariak eta gurasoak izan ziren.

HEZIBIDE

Hezibideko ikastolek aurtengo ikasturterako pentsatuta daukaten proiektu berria aurkeztu diete gurasoei. Bigarren mailako kooperatiba bat osatzeko asmoa dute, eginkizun zehatzak betetzeko helburuarekin, hala nola: hezkuntza mugimendu kooperatiboaren filosofia bultzatu; kooperatiba bakoitzaren estrategia orokorrak eta ekintza eremuak mugatu eta horien osagarritasuna zehaztu, eskala ekonomia bultzatu; eta hirugarrenik, prozesua bere osotasunean bermatu,



Datozen egunotan ere matrikulatu ahal izango dira haurrak.

kooperatiba bakoitza hobetuz eta sendotuz.

Honetaz gain, 6-18 urte artekoentzat eskaintza bikoitza aurreikusten da: bata Arrasaten, "Arrasate Ikastola", San Frantzisko eta San Viator ikastolen artekoa eta bestea Almen-en, eskualde izaera sendotzeko asmoz.

Haur Hezkuntzako kooperatiba bat eratzeko asmotan ere badabilta Hezibidekoak. Leintz bailararako, hain zuzen ere. Eta azkenik, ekintza berrietarako kooperatiba bat egitea ere pentsatuta daukate.

HERRI ESKOLAK

Herri eskolen kasuan, otsailaren 4an hasi ziren gurasoentzako bilerak egiten. Pasa den asteazkenean bukatu zuten San Andres eskolako bilerarekin. Honetaz gain, bileretara joan ezin izan diren

gurasoekin bilera egun bereziak izan dituzte.

Herri eskoletan, orain bi egitasmo nagusi lantzen ari dira.

Alde batetik, tutoretzak lantzen ari dira hezkidetzeta eta baloreak sustatzeko Arrasateko Udalarekin elkarlanean egiten ari diren egitasmo baten barruan. Lehendabizi irakasleak prestatuz eta ondoren ikasleekin lan-kidetzeta eginez. Bi urterako egitasmoa da.

Bestetik, irakurketa eta idazketa lantzeko beste egitasmo bat ere badaukate. 3 eta 12 urte arteko haurren irakurketa eta idazketa lantzeko formakuntza ikastaroek osotzen dute beste egitasmo hau. Lehenengo hiru hilabete hauetan, adibidez, publizitatea lantzen aritu dira. Orain, berriz, eskutitzak lantzen hasiko dira.

Matrikulatzeko beharrezkoa

Matrikulazio epea orain bukatu arren, askotan egoten da berandu dabilen norbait. Guraso horrek badauka oraindik ere bere seme edo alaba matrikulatzeko aukerarik. Beti ere, beharrezkoa den gutxieneko dokumentazioa eraman behar izaten da ikastetxera:

HEZIBIDE:

Umezaintza

- 1- Familia liburuaren fotokopia
- 2- Txerto liburuaren fotokopia (daukatenek)
- 3- 5.000 pezeta.

San Frantzisko Xabier

- 1- Familia liburuaren fotokopia
- 2- Txerto liburuaren fotokopia (daukatenek)
- 3- Haurraren argazki bat
- 4- 1.000 pezeta

Almen

- 1- Familia liburuaren fotokopia
- Matrikula doakoa da

San Viator

- 1- Familia liburuaren fotokopia
- 2- NAN zenbakia (daukatenek)
- 3- Hiru argazki
- Matrikula doakoa da

Herri-Eskolak:

- 1- Familia liburuaren fotokopia
- 2- Eskolan izena emateko eskabide orria
- 3- Haurraren argazki bat.
- Matrikula doakoa da eskola guztietan.



NARE


 psikologoak

 Haurrak - helduak - bikoteak

 RPS: 292/98

 Isasi, 17 - 1 • EIBAR •

 Tel.: 943 20 05 95





 Bonaventure • Diesel

 Pepe • Levis

 Otorala, z/g Behea ARRASATE

 Tel.: 943 79 11 72



**XIPRI ERE
ABESLARI**

Agustin Beitia
Xipri goiz jaiki
zen Santa Agata
bezperan. Meza
entzun, Bedoñarantz
abiatu eta jo eta ke ibili zen
kantuan, bigarren urtez segidan.

Udaletxean ondo babestuta ikusi
genuen, Juan Mari Oregi eta Jabier
Zubizarretaren artean.



BETERANOAK

Santos Iriondo eta Angel Ezkurra *Galarra* 14 bat urte
zituztela hasi ziren santageda eskean irteten. Lehenak ahots
ederra du oraindik eta bigarrenak tximistak baino
azkarragoak ditu hatzamarra.

La Merced ikastetxeok ere Santageda kantuan ibili ziren
Makatzena inguruan. Hiru talde irteten ziren: hiru urteko
neska-mutiletatik hasi eta hamaika urte bitartekoak.



SANTAGEDA ESKE OPAROA



NESKAK ERE AIROSO

Aurten bost neska irteten ziren santageda eskean. Bosgarren
urtea da irteten direla. Irunen eta Hondarribian ikasi egin
beharko lukete. Argazkian, Jesus Mari Okinaren ondoan
Inma Gomez, Silvie Schiettekatte, Gurutze Arizabaleta eta
Mari Karmen Olalde.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

**Monte
taberna**
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



BEDEINKA NAZAZU... BLAS!

Denetarik bedeinkatu zuen jendeak San Blas egunean Aretxabaletako Apotzetxebarri auzoko ermitan. Usadiozko San Blas opiltxoek eta erramuez gain, jendeak goxokiak, laranjak eta bestelakoak ere sartu zituen zapitxoan. Badago tabakoa bedeinkatu zuenik ere, agian horrela kalte gutxiago egingo diolakoan edo...

ERRETIRATU MAKALAK

Uribarriko Gizarte Etxean artista ugari daude. Halaxe dirudi behintzat egin dituzten eskulanak ikusi eta gero. Makilak, margoak, gakorrazt-lanak... denetarik egiten dute oraingo erretiratuek! Argazkian Francisco Mateos *Txikuri* eta Vidal Larraz



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 943 78 21 82
ONATI

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 943 77 09 92
Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Sagardotegia



Txotx egin!

Astelehenetik
asteazkenera
enkarguz
Ostegunetik
igandera zabalik
Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

Bonba Taldie zelaieta



Donostiako Alde Zaharreko tabernetan aparteko giroa izaten da derbi egunetan.

Orain dela urtebete bihurtu zen Bonba Taldie Errelaren "peña" ofiziala. Bergarako Jam aretoa hautatu zuten horretarako bonbazaleek. Martxoan, beraz, lehen urteurrena ospatuko dute. Dagoeneko hasiak dira jaia antolatzen.

Saul Osinaga da Bonba Taldieko lehendakaria eta berarekin batera *Lagar, Pimpo, Orso, Aran, Isi, Nabo, Kaslitros, Jon Karni* eta *Aitzolin* daude zuzendaritza batzordean.

Baina Bonba Taldieren indarra atzetik dagoen jendetzan dago. Ofizial egin zirenean, talde errealezalirik jendetsuena bihurtu zen Mondragoekoa eta gaur egun ere, horrela izaten segitzen du. Bonba Taldie gainerako talde guztietatik aparte jartzen da eta horrek berak agerian jartzen du bere indarra. Hala ere, Bonba Taldieko kideek nahiago lukete Anoetako peña guztiekin batera egon. Eta hori lortzeko ahalginetan ari dira. Bitartean, ekialdeko sabaiaren ondoan jarriko dira, Errealak Anoetan jokatzen duen guztietan.

DERBIAK, ONENAK

Alavesen aurkako norgehia-

goka hautatu genuen Bonba Taldierekin batera bidaiatzeko. Honelakoetan, partida arratsaldeko 19:00etan denean edo talde handi baten aurka jokatzen duenean, egun guztirako bidaiia egiten dute bonbazaleek.

Urtarrilaren 24an ere horrela izan zen. 10:30etan zen ordua eta hamar minutu baino ez zuen itxaron Jabik. Iritsi ez zena herrian gelditu zen. Guk, berriz, Donostiarako bidea hartu genuen.

Ostegunean jaso genituen autobuserako txartelak Monte tabernan. Joseba eta Alejo arduratzen dira astero autobusak antolatzeaz eta, egia esatera, ez da edozelango lana. Bi kale egiten dituenak, hirugarrenean ez du autobusik hartzen. Hori dela eta, bonbazaleek amnistia eskatzen dute bi kale dituztenentzat.

DONOSTIAN

San Martin kalean jaitsi ginen autobusetik eta zuzen zuzenean alde zaharrerantz jo genuen.

Ez ginen, hala ere, lehenak izan. Gu iritsi orduko, Donostiako alde zaharreko kale guztiak txuri-urdinez jantzita zeuden. Eta badakizue zeri buruz ari naizen: Errealak eta

Alavesen zaleek kolore berdinak daramatze!

Lehenengo geldialdia Boulevard kafetegian egin genuen. Hori ere, Bonba Taldieren ohitura da: lehenengo pintxoak hortxe jan behar da! Handik, tabernetara! Eta zelako giroa!

Bazkaltzeko sagardotegira joateko ohitura dute bonbazaleek horrelakoetan. Baina gaur ez. Gaur parranda eguna da eta Donostiako pintxoak ere dastatu behar dira.

Norgehiagoka arratsaldeko 17:00etan izanda, nahiko denbora izan dugu kalean gora eta behera aritzeko. 16:30etan, garraio publikoa hartu eta Anoetara. Eta han, beste geldiadi bat. Oraingoan Anoetako Arranon, hori ere derrigorrezkoa da eta.

AZKENEAN BARRURA

Arratsaldeko 17:00etan abiatu gara Anoeta futbol zelaira. Sartu orduko pankartak eskegi behar dira. Bat Bonba Taldie izenarekin. 8 m luze da. Ipintzen duten bakoitzean, segurtasuneko arduradunak agertzen dira publizitatea estaltzen


Goizeko 10:30ak. Gai ka
lagun bildu gara Dtiara
Errealak Alavesen aurkatu
ikusteak. Aspaldiko urten Ala
lehen mailan jokatu den l
eta Bonba Taldiezin d
Hori dela eta, gan g
Jabirekin, Ba Ta
gidozial
atera

...n jaun eta jabe



Futboleko aritzeko edozein leku da aproposa. Gogoia izatea da behar den bakarra.

k. Gai kalean hogeita hamar
a Dñari joateko. Helburua
aurkatuko duen norgehiagoka
urten Alavesek Errealaren aurka
tutuen lehenengo partida da
aldiz du aukera galdu.
gan goiz Donostiara goaz
n, Ba Taldieko autobus
gidizialarekin
atera.



segurtasunekoek amore eman behar izan dute. Beste pankarta Santi Zeziagaren omenezkoa da.

Egun osoa parrandan ibili eta gero, Anoetan bizi den giroa apartekoa da. Igandero legez, jarraitzaile taldeek pankartaz josi dute Anoeta. Peña Mujika, Txefe Guerrero, Jauregi Taldia, Peña Agus, Peña Kovasevic, Peña Izar, Peña Didi...

Eta zelaiaren beste aldean, Alavesen zaleak. Denak batera eseri dira eta a ze nolako giroa duten!

Partidari dagokionez, joko eskasa eta gainera Alavesek berehala lortu du lehenengo gola.

Errealak ez dirudi markagailuari buelta ematen asmaturiko duenik, baina halako batean, hor non agertzen den Kovasevic eta *gol!* eta berriz, *gol!* Azkenean 2 eta 1. Partida irabazi egin du Errealak, baina zaleak ez dira gustura gelditu euren taldeak eman duen itxurarekin.

Gainera, *Bonba* zelaiaren zela, aldatzea erabaki du Kraus-

sek. Hura izan da txistukada entrenatzaile austriarrak entzun behar izan duena *Bonba* Taldieren partetik!

Baina helburua bete dugu. Partida ikusi dugu, *Bonba* animatu dugu eta, gainera, irabazi egin dugu. Orain pankartak jasotzea baino ez da gelditzen eta handik autobusera. Jabik lehen esan digu non egongo den, beraz ez dago arazorik. Dena den, autobusera sartu ahala zenbatu egin behar da, inor falta den ikusteko. Denok gaudenez, martxa!

BONBAZALEAK

1997ko martxoan eman zuten izena Errealean. *Bonba* Taldie, ordea, aurretik hasi zen Aitor Lopez Rekarte *Bonba* animatzen. Sansen taldean ari zenean ere hortxe izaten zituen herrikoak txalotzen. Ezaguna da oso bonbazaleen irudia. Orain dela lau urte ere, bigarren mailako Bilbao Athletic eta Errealaren arteko norgehiagokan ikusi ahal izan zen *Bonba* hori.

Hasiera hartan atera zituzten elastikoetan egin zuten bonba irudiaren proba eta ondo geratu zenez, elastiko ofizialak atera zituzten.

Jakin dugunez, ordea, berriztekotan dira elastiko

ofizialak ere. Arrasate Kiro-laken laguntza eskertu nahi izan dute bonbazaleek. Zuzendaritzako kideen hitzetan, "asko lagundu digute eta hori beti da eskertzekoa".

Gaur egun 189 lagunek osatzen dute Taldie. Hauetatik hamar baino ez dira neskak eta Errealeko bazkide, berriz, lauorrei bat. Baina zer behar da *Bonba* taldeko kide izateko? Mondragoetarra eta futbolzalea izatea eta, noski, parrandarako gogoia izatea! Ez da asko eskatzen, ezta?

Gainera, eta eurek diotenez, "talderik atsegina, mailagarria eta Euskal Herriko onena da, jokalaria bezala".

Bazkideek hileroko 1.000 pta ordaintzen dute. Baina badira berandu ordaintzen dutenak ere eta horiei adi ibiltzea eskatzen die zuzendaritzak. Trukean, antolatzen diren irteerak merkeagoak dira *Bonba* taldeko kideentzat.

Laster batzar orokorra egingo da eta hor zuzendaritza berria aukeratu dute.

ISKANBILA EDERRA

Mondragoeko Iskanbila taldeak *Bonba* Taldieri eta *Bonbari* berari kanta bat egin zien. Orain kantu hori CDan grabatzekotan dira. *Bonbak*, De



Arranotik Anoetara, han Bonbaren izara zabaldu (30 m) eta gol.



Xabier Albizu.

Pedrok, Aranzabalek, Idia-kezek eta Aldeondok, beste-ak beste, ahotsekin lagundu-ko dute. Entzutekoa izango da futbolari hauek abesten.

Dena dela, ez da dena larrosa kolorekoa futbolzaleen artean. Bonba Taldiek harrera txarrak ere bizi izan ditu Espainia aldeko futbol zelaietan. Oraindik ere bizirik dago Aitor Zabaletaren erailketa. Bonba Taldieko kideek argi daukate "Aitor euskaldun izateagatik erail zutela". Gijon, Zaragoza, Santander eta Madril ez dira leku onak zale hauen ustez.

"Ultrak dau- den lekuetan kontu handi- diz ibili behar gara. Baina badira ondo baino hobeto hartzen gaituzten futbol zelaiak ere. Horien artean daude Salamanca edo Vigo".

Bonba Taldie Aitor Zabale- tarekin gertatu zena eta gero, Errealeko peña guztien bozeramaile izan zen. Prentsaurrea Bonbako zuzendaritzako kidea den Bittor Arriaranek eman zuen. Egun gogorak bizitza tokatu zitzaion, txuri-urdin guztiei bezala. Horren adibideetako bat da orain dela

"Bonbako kide izateko? Mondragoetarra, futbolzalea eta parrandarako gogoia izatea"



Bonba Taldie
Bonba Taldie
zelaietan
jaun ta jabe
Bonba Taldie
Bonba Taldie
etsi gabe
irabazi arte
(ISKANBILA)

gutxi Errealak Madrilera egin duen bidaia. Bonba Taldieko bost kide bakarrik joan ziren txuri-urdinak animatzera eta kontatu dutenez, ez zen oso esperientzia gomendagarria izan. "Kalean ere txistuka egi- ten ziguten eta zelaira sartu ginenean ez genekien non sar- tu".

BAZKIDERIK GAZTEENA

Bonba Taldieko 189 bazki- deak hamazazpi eta hogeita hamabost urte bitarteko txuri-urdinak dira. Beno, egia esan behar bada, badira txuri-gorri batzuk ere. Baina bitxi-ena zale gaztearena da. Bi urte eta lau hilabete baka- rrik ditu. Xabier Albizu du ize- na eta Osintxun bizi da. Aitak Bonbako kide egin zuen, nahiz eta bera ez den kide. Hau da hau, harrobia!

ETXERA BUELTRAN

Partida amaitu da eta denok gaude auto- busean. Iluntzen hasi da eta Mondragoera buelta hasi dugu. Gehienok lo kuluxkada egite- ko aprobetxatzen dugu. Datorren astean kanpoan tokatzen da jokatze- a eta bi aste pasa- ko dira berriz ere Anoetara joan arte. ■

Marijo Deogracias

Lirain: 111 egun lanean

Lirain estetika zentroa eta emakume gimnasioa 1994ko urriaren 24an inauguratu zen, orain 111 egun. Ez zen hutsetik sortu, hala ere. Aurretik Estetika Pardo zegoen, Mari Karmen Pardok 18 urte zituela sortu zuena.

Orain urtebete pasatxo, berriz, Mari Karmenek eta bere senarra Alberto Garrok bat egin zuten Iñaxio Garro eta Arantxa Lejarragarekin, Lirain sortzeko. Zabaldu egin zuten estetika zentroaren eskaintza, gorputzeko tratamenduak, lokatzak eta hidromasajeak eskainiz. Horrezaz gain, emakumeentzako gimnasioa ireki zuten, estetika zentroa osatzeko. Era guztietako zerbitzuak hasi ziren eskaintzen: aerobic maila guztietan, mantenimenduko gimnasia, *power dunball* giharrak lantzeko, yoga, areto dantzak, makina aerobicoak, zerbitzu lasaigarriak, dutxa eskoziarra, lurrun bainuak eta zerbitzu medikua Athlonekin elkarlanean.

Bezero gehienak —Lirainek 210 bezero inguru ditu—



Iñaxio Garro, Arantxa Lejarraga, Mari K. Pardo eta Alberto Garro.

LIRAIN	
ESTETIKA ZENTROA EMAKUME GIMNASIOA	
• Kudeatzailea	Alberto Garro
• Estetika arduraduna	Mari Karmen Pardo
• Estetizistak	Nieves Pardo Silvia Arrocha Leire Guenetxea
• Harreragilea	M ^a Angeles Arrese
• Gimnasia irakasleak	Mertxe Valdivieso Manu Fernandez
• Yoga irakaslea	Encarna Mendez
• Masaje emaila	Arene Leizaola

emakumezkoak dira, adin guztietakoak, nahiz eta gehienak hogeita hamar urte inguruko-

ak izan. Bakoitzak gehien komeni zaion ordutegia aukeratzan du, Lirain goizeko

09:00etatik arratsaldeko 20:00etara baitago zabalik.


Diruari dagokionez, matrikula behin ordaintzen da, hasieran. Hortik aurrera, hileroko ordain saria. Zerbitzuen arabera, ordain saria 4.250 eta 6.500 pta artean ibil liteke.

TEKNOLOGIA

Teknologiarik berrienak ekartzen saiatu dira Lirainen. Zutikako solariuma, adibidez, askoz ere azkarragoa omen da. Makina aerobicoak ere sofistikatuak dira. Larrun bainua, ostera, hobeto eramaten omen da sauna sikua baino. Dutxa eskoziarra, berriz, egokia da zirkulazioa hobetzeko. Teknologia berritzez gain, irakasleak ere hortik zehar ibiltzen dira, kongresuetan eta, prestatzen eta ikasten.

Epe motzera Liraingo arduradunek zabaldu egin nahi dute gaur egungo eskaintza, yoga indartuz eta adinekoentzako gimnasia landuz, adibidez. Epe luzera, ordea, esperientzia hartu nahi dute, helburu garbi batekin: zerbitzuak hobetzea.

DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk
INAUTERI ALAIK
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

X Bataioak, jaunartzeak,
enpresa bazkariak eta
lagunartekoak

X Karta eta menu
berezien zerbitzua

DENBORALDIKO
PLATERAK,
GIRO ONENEAN



BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 24 58

Gogoak behintzat ez dira falta!

Kamasutra eta Dribling taldeen arteko norgehiagokan izan ginen joan den asteburuan.

3 eta 4 irabazi zuten Dribling taldekoek. Gogoak bi taldeek jarri zituzten. Ikusi bestela argazkia. A ze nolako jauziak egiten dituzten batzuek gauza horobil batengatik!



Laburrak

■ BI GUTXIAGO

Hau da, hau, errosarioa. Aste batetik bestera gutxiago dira Zaldibarko futbito txapelketan ari diren taldeak. Zenbat aterako dira bizirik lehen aldia bukatu baino lehen? Martxa honetan, apustuak ere egingo ditugu! Hona gurea: lehen aldia bukatu baino lehen, baietz hamabi talde jausi!

Oraingoan A taldeko Rotor

de Bolbogrado eta D taldeko Jako al Rey (jake eurei egin diete!) taldeen txanda izan da.

■ ATZERATUTAKO NORGEHIAGOKA


Asteburu honetan jokatuko dute D taldeko Bar Nuevok eta Sokoakoak taldeek atzeratuta duten partida. Desafioa igan-dean izango da, Zaldibarren, eguerdiko 13:00etan. Bi talde

hauk bi norgehiagoka jokatuko dituzte beraz, asteburu honetan.

■ SAILKATUAK GEHIAGO DIRA

Hamalau talde sailkatu dira dagoeneko bigarren aldirako. Sei talde A taldean, lau B taldean eta beste lau D taldean. Hauek guztiak hurrengo aldian ere ikusiko ditugu. Beraz, gau-

zak argitzen doaz, oraindik lau jardunaldi gelditzen direnean. A taldetik, Orlando Piratas, Lontxo Taberna, Xhass Ugarte, AC Surkos eta Insert Coin sailkatu dira. B taldetik, Txantxiku Kirolak, Irati STS, Naranja Mecanica eta KKJauri eta D taldetik, berriz, You Know, Jotakabau, Potroak eta Dribling pasatu dira bigarren aldira.

OPEL 

TAKOLO AUTOAK

OPEL FRONTERA BERRIA!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRATA	13	13	0	0	77	26	26
LONTXO TAB.	13	10	2	1	71	30	22
XHASSS UGARTE	13	9	2	2	77	42	20
AC SURKOS	12	8	1	3	68	42	19
INSERT COIN	13	9	1	3	50	44	19
PEPELUS	13	7	4	2	51	40	18
ALDIBI	13	8	1	4	80	98	17
LEYA	13	6	2	5	47	52	14
KOM. ALPARGAT	13	6	1	6	68	36	13
KE OXTIAS	13	5	2	6	40	34	12
SAUKE. SCREAM	13	4	2	7	28	38	10
SERENGETI HC	13	4	2	7	39	55	10
BUKANAK	13	3	1	9	46	73	7
ALAI GOZOKIAK	13	3	1	9	35	66	7
BALON ROJO	13	2	9	25	62		6
REX 23	12	2	0	10	30	70	4
MAKAI	13	2	0	11	30	72	4
ROTOR DE BOLBO.	13	1	2	10	25	79	4

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	13	12	0	1	105	27	24
NARANJA MEC.	13	9	2	2	81	43	20
IRATI STS	13	9	2	2	68	31	20
KKJAURI	13	9	2	2	60	77	20
GARAJE OSKAR	13	8	2	3	53	33	18
LOS HEREDIA	13	8	1	4	32	42	17
AURRERA BOLIE	13	8	0	5	49	36	16
KOKA JUNIORS	13	6	3	4	42	40	15
DKB	13	6	2	5	47	50	14
DIEGO ANTONIO	13	5	4	4	42	52	14
ZOTZ	13	5	2	6	52	48	12
AT CELAYA	12	5	1	6	33	43	11
POTROSORRI	12	5	1	6	36	72	11
LAUTERBRUNENN	13	4	1	8	22	42	5
BORROCK&ROLL	13	2	2	9	20	31	5
ATERPE KAFET.	13	1	1	11	20	55	3
PUB ARROGOI	13	1	0	12	70	31	2
ETXE MOBEL	13	0	1	12	28	84	1

Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 5 - Aldibi 8
Lontxo Tab. 4 - Pepelus 2
Orlando Pir. 8 - Alai Gozokiak 1
Saukelu Scream 1 - Xhasss 4
Rex 23 - AC Surkos (atzeratuta)
Makai 2 - Komando Alpargat 8
Insert Coin 1 - Rotor de Bolbo 0
Ke Oxtias 1 - Balon Rojo 0
Leya 3 - Serengeti HC 3

B TALDEA

Borroack&Roll 0 - AT Celaya 1
DKB 3 - Irati STS 3
Garaje Oscar 2 - Txantxiku Kir. 6
Aurrera Bolie 1 - Lauterbrunnen 0
Etxe Mobil 5 - Koka Juniors 10
Pub Arrogoi 0 - Diego Antonio 1
Los Heredia 4 - KKJauri 8
Naranja Mec. 1 - Aterpe Kafete. 0
Potrosorri 7 - Zotz 5

D TALDEA

Cons. Luso 1 - Jotakabau 3
Petroak 6 - AitaMenni 2010 4
Sokoakoak 1 - Branka Taberna 10
Decadencia 0 - Totem 2
Fraguel Gol 0 - You Know 2
Dribling 4 - Kamasutra 3
EPEH 5 - Betrayal 5
Jako al Rey 0 - Bar Nuevo 1

D taldea

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	12	12	0	0	60	21	24
JOTAKABAU	13	9	1	3	36	29	19
POTROAK	12	8	2	2	60	77	18
DRIBLING	12	8	2	2	62	40	18
AITA MENNI 2010	12	8	1	3	49	36	17
EPEH	12	6	4	2	46	46	16
TOTEM	13	7	1	5	49	34	15
BRANKA TAB.	12	5	4	3	56	69	14
FRAGEL GOL	12	4	3	5	43	41	11
KAMASUTRA	12	4	2	6	53	38	10
BETRAYER	12	4	2	6	44	46	10
BAR NUEVO	11	4	2	5	38	40	10
SOKOAKOAK	11	5	0	6	34	45	10
DECADENCIA	12	2	3	7	25	26	7
JAKO AL REY	13	2	3	8	38	48	7
EUSKO LABEL	12	0	0	12	25	93	0
CONS. LUSO	13	0	0	13	20	77	0

ARRASATE  **KIROLAK**
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON



Hurrengo partidak

Otsailak 13, larunbata Zaldibar

09:50 Branka Ta. - You know
11:00 Aldibi - Kom. Alpargat
12:00 Gar. Oscar - Heredia
13:00 Betrayal - Aita Menni
14:00 Xhasss - Serengeti
15:00 AT Celaya - Diego Ant
16:00 Sokoakoak - Dribling
17:00 Txantx. Kir. - Koka Jun.
18:00 Orlando Pir. - Insert Coin
19:00 Totem - Bar Nuevo

Iturripe A

13:00 Lontxo Tab. - Ke Oxtias!!!
14:00 Sauleku. - Rex 23
15:00 Decaden. - Fraguel Gol
16:00 Aurrera Bol. - Etxe Mobil

Iturripe B

14:00 Bukanak - Makai
15:00 DKB - Naranja Mec.
16:00 Cons. Luso - Eusko Label

Otsailak 14, igandea

09:50 Alai gozoki. - AC Surkos
11:00 Ptroak - EPEH
12:00 KKJauri - Potrosorri
13:00 Sokoakoak - Bar Nuevo

Atsedena:

A taldea: Leya, Pepelus

B taldea: Irati STS, Zotz

D taldea: Jotakabau, Kamasutra



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Mondrako erdilari berria

GORKA ERREKALDE

“Urte oso bat neraman jokatu gabe. Mondrak aukera eman zidanean berehala esan nuen baietz”

— **Noiz hasi zinen futbolean jokatzeko?**

— Sei-zazpi urtekin hasi nintzen mini-futbolean, Eibarren, nire herrian.

— **Non jokatu duzu orain arte?**

— Izarraitz taldean igaro nituen nire lehenengo urteak. Gero Eibar taldearen maila ezberdinetan jokatu nuen, eta pasa den urtean Ermuan. Hala ere, denboraldi erdian utzi egin nuen.

— **Badakizu Mondra ez dabilela denboraldi ona egiten, zer eskainiko diozu taldeari?**

— Nik lana eskainiko dut, eta ea horrela, guztion artean, Mondra zulotik ateratzea lortzen dugun.

— **Zergatik etorri zara Mondrara?**

— Urte oso bat neraman jokatu gabe eta Eibarrekin baino ez nintzen entrenatzen. Horregatik, Mondrak aukera hau eman zidanean berehala erantzun nuen baietz.

— **Zein tokitan jokatzeko duzu?**


— Zelaiaren erdialdean jokatzeko dut, ezkerrean nahiz eskuinean. Dena den, entrenatzaileak eskuinaldean jartzen banau, hobeto.

— **Ezagutzen zenituen taldekideak?**

— Ez nituen ezagutzen, baina txikitik Mondrako jokalarik askoren kontra jokatu izan dut.

— **Ze talderi gustatuko litzaizuke irabaztea?**

— Pasa den igandean Oñatin izan nintzen Aloñamendi eta Mondraren arteko derbia ikusten, baina ez ditut maila honetako taldeak ezagutzen. Ez dut hobespenik. Talde guztiei gustatuko litzaizaidake irabaztea.



FUTBOLA Atxabalpeko gaitza



Jabier Letona preferente mailako Mondra taldearen entrenatzaileak esan zuen bezala, Atxabalpeko gaitza dauka taldeak. Hori dela eta, joan den igandean ere galdu egin zuen Mondra taldeak Urretxuko Urola taldearen aurka.


Aukera bikainak izan zituzten mondragoetarrek lehen eta bigarren zatietan, baina ez zuten aurkariaren atarerekin asmatu. Bisitariek, ordea, 0 eta 1ekoa lortu zuten partidaren 65. minutuan eta hiru puntuak eraman zituzten.

Sailkapenean 23. dago Mondra 23 punturekin, promozio tokietatik oso hurbil.

Fitxajeen atalean, Aretxabaletako 19 urteko atezain bat ekartzekotan da Mondrako zuzendaritza. Atezainak Alavesen jokatzeko du eta nahiko negoziazio korapilotsua izaten ari da, antza.

Asteburu honetan, Oriokoren aurka jokatu behar du Mondrak. Orioko mondragoetarrek baino toki bat gorago dago sailkapenean. Beraz, nahiko norgehiagoka parekatua izango da.

SASKIBALOIA Lehen aldiaren amaiera




Irabazi egin zuen Arrasate Saskibaloi taldeak joan den larunbatean Iturripen. Aurrez aurre Arrasate-Askatuak taldeak aritu ziren. Orain arte egindako denboraldi onaren ispilu izan nahian, mondragoetarrek tarre izugarri gailendu zituzten donostiarrak.

Lehen aldiko azken norgehiagoka izan zen eta 88 eta

51 irabazi zuten. Asteburu honetan jai izango dute eta gero igoera *play off*eko partidei ekingo diote. Orain dela bi aste jokatu zuten lehenengoa eta galdu egin zuten. Dena den, eta inauteri ostera arte jokatuko ez dutenez, nahikoa denbora dute Danel eta Zesarren mutilek entrenatzeko.


ESKUBALOIA Ohitura legez



Ohitura bihurtzen ari da. Senior mailako Arrasate eskubaloi taldeak ezin du garaipenik lortu. Joan den larunbatean ere berri galdu zuten eta etxean oraingoan.

Partida ona egin zuten mondragoetarrek eta ez zizkieten gauzak erraz jarri Zumaiako Pulpo taldeari. Aurretik ere ibili ziren markagailuan. Bigarren zatian gazte mailako atezaina aritu zen Arrasateko atea defenditzen. Igor Egaña ondo aritu zen eta taldeak garaipena lortu ahal izan zuen. Azkenean, ordea, Iraola kanpora bidali zuen epaileak eta taldeak amore eman zuen Pulporen aurrean. 19 eta 24 amaitu zen norgehiagoka. Larunbatean Usurbilgo taldearen aurka arituko dira, arratsaldeko 18:30etan.

XAKEA Azkenean, bosgarren



San Andres Xake taldeak amaitu du dagoeneko denboraldia. Azken neurketa galdu egin zuten arren, bosgarren gelditu dira sailkapen nagusian. Hemendik aurrera Tornayk eta Ortegak Gasteizen banakako Arabako irekia jokatuko dute.

auto fidagarri, seguru, dinamiko,
berritzaile, zabal, jostagarri eta,
nortasuneko bat nahi duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.


zeren eta zu zerbait
gehiagoren bila baitzabiltza

fordfocus berria

“Erabiltzaile eta
Kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU), “crash
test” delakoaren bitartez
egindako ikerketaren
arabera, Ford Focusesk
puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. alean argitaratua

Audi A3 ****
Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
suzuki baleno **



zegoenarekin etsi beharrean zინenean, zerbait gehiago aurkitu duzu. gehiago, ford focus berriaren kanpo diseinua. eta barrukoa, zabalagoa, dena esku-eskura jartzen dizuna. gehiago, bai eta jokaera egonkor, zehatz eta zalu bai ere. bere 1.6ko (16v eta 100 ZP) aluminiozko motorrarekin, harritu egingo zaitu prestazioetan eta kontsumoan, eta gainera, gidariaren eta ondokoaren airbag-a dakarte guztiek. oraintxe ailegatu da ford**focus** berria, zure itxaropen-muga betiko aldatu duen autoa.

ford focus trend, 16v 100ZP, 2.000.000 pezeta (jendearentzako prezio gomendatua, lantak aparte))
informazioa eta proba:

Automóviles Mugarri
Araba Etorbidea, s/n
ARRASATE-MONDRAGON
Tel: 943 70 75 64



Born Jay txirrindulari taldea abian

Hamasei txirrindularik osatzen dute Born Jay txirrindulari taldea. Joan den asteazkenean egin zuten aurkezpen ofiziala Mondragon Hotelean. Arrasate Txirrindulari Elkarteko kirolari hauen zuzendariak Josu Estevez, Eneko Garai eta Imanol Etxeberria izango dira.

Txirrindulari taldeko zortzi lagun berriak dira. Beste zortziek, berriz, taldean segitzea erabaki dute: Javier Miguel Benedit andoaindarrak, Antonio Urmenetak, Errenteriak, Oskar Askasibar elgetarrak, Jokin Lizeaga Urnietak, Ramon Javier Garcia, Elgoibarkoak, Ruben Gonzalek, legorretarrak eta David Sojo Okondok (Araba). Taldekide berriak Gatzagak, Tolosak, Lazkao, Elgoibar, Antzuola eta



Abenduan egin zuten urteko lehenengo kontzentrazioa Nafarroan.

Irundik etorri dira. Baina bada urrunagotik etorri den txirrindulari bat ere. Jordi Valbuena kataluniarra da eta Seguros Arreko taldean aritu da orain arte.

HERRITAR BAKARRA

Iñaki Llodio izango da Born Jay taldean arituko den herriko txirrindulari bakarra. Orain arte Fagor taldean aritu da eta

23 urte azpiko tropelera egin du jauzia Arrasate Txirrindulari Elkartearen eskutik. Lagun izango du Unai Beitia, hau ere Fagorren ibilia.



Mari Jose Gilek, Arrasate Motorzale Elkartek eta Santi Etxeberriak jaso zituzten 98ko Aukea sariak.

Denboraldiko sari banaketa



Zazpi sari banatu zituzten zikloturistek.

Futbolari sarituak

Aitor Lopez Rekartek eta Imanol Etxeberriak Radio Euskadik urtero euskal taldeei ematen dizkien sariak jaso zituzten. Bonbak taldearen hauspoa izeneko saria eskuratu zuen, joan den ostiralean Lasarten egin zen sari banaketan. Imanolek, berriz, jokalariek seguru-

naren trofeoa eskuratu zuen Guggenheim museoan joan den asteartean egin zen sari banaketan.



Zikloturistek iazko denboraldiko sari banaketa egin zuten urtarrilaren 16an. Deba Garaia zikloturisten taldeak urtero egiten du sari banaketa hau eta oraingoan ere, horrela izan zen. Garaikurra jaso zutenak honako hauek izan ziren: Jose Luis Ujidos, Jose Migel Landa, Bitor Oregi, Bernardo Aranzabal, Isaak Kortabarria, Jesus Parra eta Cubino.

Sari banaketaren ostean Batzokian afaldu zuten ziklo-

turistek euren emazteekin.

Bestalde, orain artean taldeko lehendakaria izan den Emilio Saezek bere kargua laga du. Bi urtez izan da lehendakari eta hemendik aurrera Bernardo Aranzabalek beteko du kargua.

Martxoaren 7an ekingo diote 1999-2000 denboraldia-ri, taldea osatzen duten 44 zikloturistek. Lehenengo irteera Dorletako Amari lora eskaintza egiteko izango da.

JOSEBA LARRINAGA (ATLETA)

“Momentuz Sidneyko paraolimpi

Joseba Larrinaga aretxaballetarra 21 urterekin hasi zen atletismoan, lagun arteko kirol bat egitearren. Herriko atletismo taldean sartu zen gero, eta ordudunik piskanaka hobetzen joatea omen zen bere helburua. Baita lortu ere, ederki asko gainera. Portugalen egin den elbarrituen munduko 1. krossetik etorri berri da, seigarren tokian helmugaratu ondoren.

— Noiz hasi zinen atletismoa serio hartzen?

— Lehenengo urtebete entrenatzen bakarrik egin nuen. Lasterketaren batean edo bestean hartzen nuen parte, baina zer zen ikusteko gehienbat. Gero Pedro Mari Azkargortarekin hasi nintzen entrenatzen, eta entrenamenduak geroz eta zehatzagoak izaten ziren. Gogoratzen dut nola Azkargortak esaten zidan, “lehenengo lana” egin behar genuela, eta gero lan horren

emaitzak jaso. Egun batetik bestera ez dago gauzak lortzerik.

— Zerk bultzatu zintuen lasterketetan parte hartzera?

— Besterik gabe hasi nintzen lasterketetan parte hartzen. Batez ere esperientzia bila joaten nintzen. Orain, ordea, erantzukizuna handiago da, eta ondorioz entrenamenduak ere serioagoak izaten dira.

— Gaur egun zein leku betetzen du atletismoak zure bizitzan?

— Nire bizitzako leku handi bat betetzen du, beste zenbait esparruk bezala. Zaletasuna baino askoz gehiago da, batez ere elbarrituentzako atletismoa.

— Elbarrituen kirolari ematen zaion tratamendua egoikia da?

— Ez. Goi mailako atletismoarekin parekatuta, gutxi baloratzen da. Esparru denetan nabaritzen da hori: estamentu politikoetan, sozialetan... Elbarrituen kirola frogatzen bereziren bat dagoenean edo norbaitek lortzen handi bat egin duenean soilik aipatzen da. Laguntza instituzionalik ere ez dugu jaso-

tzen. Horregatik, elbarrituok lan handia egiten dugu gure kirolak aurrera egin dezan.

— Zein izango litzateke gizarteari buelta emateko modua arazo honi dagokionez?

— Institutio politikoek eta publikoek beste modu batera begiratu behar lukete elbarrituon kirola, eta beste gauza batzuk baloratzen hasi. Heda-bideek ere lan handia egin dezakete horretan.

— Estatuko eta munduko hainbat lasterketetan hartu duzu parte.

— Bai. Alemaniako munduko txapelketan izan nintzen 1994an. 5.000 eta 10.000 metroko lasterketetan hartu nuen parte, eta bosgarren eta laugarren postuetan helmugaratu nintzen. Maratoian, berriz, bigarren egin nuen. 96. urtean



“Institutio politikoek eta publikoek beste modu batera begiratu behar lukete elbarrituon kirola”

...piadak gertatzen ari naiz”

Atlantako joko paraolimpikoetan izan nintzen, eta esperientzia aberasgarria izan zen. Kirolarion arteko elkarbizitza oso positiboa izan zen. Han 5.000 metrotan 5. tokia lortu nuen eta maratoian zilarrezko domina irabazi nuen.

— Froga horietan parte hartzeko zein baldintza bete behar da?

— Atzerrira joateko Espainiako elbarrituen federazioan sartuta egon behar duzu. Federazioak ordaintzen dizkigu bidaia eta egonaldia, eta aukeratua izateko urtean marka batzuk egin behar izaten dira. Dena den, Espainian korrika-

lariok mugitu behar izaten dugu gauzak lortzeko.

— Zein lasterketa mota duzu gustukoena?

— Distantzia luzeak, maratoi erdiak eta maratoiak. Ez dut lastertasunik, baina distantzia luzean gai naiz erritmo konstanteari eusteko.

— Froga garrantzitsu batean parte hartzeak zein prestaketa eskatzen du?

— Entrenamenduetan sakrifizio handia egin behar da, eta norbere burua zaindu eta deskantsua egin. Zehatz-mehatz eramanez gero, ordea, gauza asko utzi behar dira alhora.

— Portugalen, Algarbeko Villamoura herrian 6. tokia lortu duzu. Gustura egindako lanaz?

— Postu hobea egitea espero nuen, baina ez nuen nire burua ongi aurkitu. Entrenamendu egokiak egin ditut, baina ez zaizkit gauzak ongi irten. Beste alde batetik, pozik nago, ez baitzen nire distantzia.

— Atletismoan egindako ibilbideak zer irakaspem eman dizu?

— Sakrifizioak ez direla alferrik egiten. Aurrera segi eta bizitzeko gogo berezia sentiarazi dit, eta gauzak beste modu batera ikusteko modua

eskaini dit. Nire entrenatzailearengandik ere asko ikasi dut; gizarteko edozein esparrutarako mezu aberatsak erakutsi dizkit.

— Orain zein helburu duzu?

— Momentuz udazkenean egingo diren Sidneyko paraolimpiadak gertatzen ari naiz.

— Zeini eskainiko zenizkioke orain arteko lorpenak?

— Orain arteko lorpenak ez dira nireak bakarrik. Nik esfortzua eta gogoa jarri ditut, baina nire entrenatzailearen eta inguruko laguntza gabe ez nukeen lortuko. ■

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A



Bularra eta azala mintzen duten ziriak



Haragia bularretakoan alboetan



Tirante eroriak edo azala estutzen dutenak



Bizkar desitxuratutak



Bularretakoan azpitik irteten diren bularrak



Bular eroriak



*Honen konponbidea
ORTO-LAGUNen daukazu*

*Hemendik aurrera
bularretakoak neurritira!*



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

San Valentín egunean Bergarako amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa

Aurten ere egin da amodiozko gutunen VII. Berrigara lehiaketa. Sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an izango da, San Valentín egunean, Bergarako Kartzela Zaharrean. Sari banaketaren aurretik "Tribuaren hitz galduak" Pako Aristi eta Mikel Markezen poesia eta musika emanaldia izango da. Aurtengo irabazlea Xabi Larrañaga Getxokoa izan da, eta 75.000 pta eskuratu ditu. Patera batean Tarifako hondartzara heltzeaz dagoen etorrikin batek bere herrian utzi duen maiteñoari zuzentzen dion gutuna idatzi du Xabi Larrañagak.

BIGARREN SARIA BERGARARA

Bigarren saria Bergarako Roberto Izagirrentzat izan da. Haurtzaroan sortutako amodioa zahartzaroraino heldu zaion emakumea da bere gutuneko protagonista. Emakumea, ordea, beste gizon batekin ezkondu zen, eta hura



hiltzean hainbeste urtetako maitasuna gutun baten bidez aitortu zion.

Gasteizko Josu Andoni Arenazari ere bigarren saria

eman diote. Josuren gutuneko protagonista asiloan hiltzeaz dagoen 61 urteko gizona da. Honek Olentzerori zuzendu dio bere eskutitza, gaztetako

bere maiteñoak barka diezaion eskatuz, aukera iritsi zitzaionean berarekin joan ez zelako.

Bergarar onenaren saria Jon Sanchezek lortu du, eta bere gutunean gazte batek bere bizitzako hogei urteetan inoiz eza-gutu ez duen Euskal Herriko egoeraz idazten dio bakeari.

Irakurle gazteen saria, berriz, Ordiziako Adur Ezenarrok eskuratu du. Ordiziar honen gutunean amodio birtualaren gorabeherak azaltzen dira.

KALITATE ONA

Epaimahaia Andoni Egaña bertsolariak, Jasone Osoro kazetari eta idazleak, Juan Martin Elexpuru idazleak eta Garikoitz Berasaluze literatura kritikoak osatu dute. Hauen iritziz, gutunek orohar kalitate ona izan dute. Erabilitako gaietan errepikatuen ezinezko harremanena izan da, eta gehientsuenek erromantizismo kutsua dute. Kartzelatik bidalitako gutunak eta hildakoak tartean direnak ere ugari izan dira.

**Aupa arrasatearrak!
Aupa Inauteriak!**

Inauterietan aldatu zure orrazkera
Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

ESKIÑA taberna
Zorionak eta ondo ibili Haratuzteetan!
Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20

NATALIO MAIZTEGI, DANTZA IRAKASLEA

“Mutilek lotsa handiagoa dute dantza egiteko”

Natalio Maiztegi 28 urte ditu. Duela bederatzi urte hasi zen dantza ikasten, Oñatin, bere jaioterrian. Betidanik gustatu izan zaio dantza egitea. Gerora ikastaro asko eman ditu, eta horretaz gain animazio dantza egiten du hainbat dantzaleku zein tabernatan. Besteak beste, Mondragon Hotelean, larunbatero, gaueko hamabietan hasita.

— Dantza ikasten hasi zinela, dantzaz bizitzeko helbururik bazenuen?

— Ez nuen horrelako asmorik. Dena den, lagun talde batek ikastaro bat emateko eskatu zidan Arrasaten, eta animatu egin nintzen. Talde horretako jendea gustura zegoen, eta gero gimnasioetatik, ikastetxeetatik eta kultura elkarteetatik hasi zitzaizkidan deika.

— Orduan erabaki zenuen dantza serioago hartzea?

— Bai. Jendearen eskaera handia zela ohartu nintzen, eta horren aurrean nire burua mugatuta ikusi nuen. Irakasteko gogoia nuenez, era berean gehiago ikasi beharra sentitu nuen, eta Donostiara joan nintzen ikastera. Geroztik Madrilen ere hartu ditut ikastaroak.

— Ikastaro asko eman dituzu Arrasaten?

— Bai. AEDn, San Viator ikastolan, Uribe auzoan, Beti Ona gimnasioan, Zigorrolan, Santa Teresan, Lirainen... aritu naiz dantza irakasten.

— Beste hainbat herritan ere izango zara, ez?

— Bai. Aretxabaletan, Aramaion, Zumarragan, Oñatin eta Iruñean ere ematen ditut ikastaroak.

— Proiektu berri batean ere buru



belarri barneratuta zaude.

— Bai. Elbarritu fisiko eta psikikoei hasi naiz dantza irakasten. Iaz Holandan izan ginen txapelketa bat ikusten, eta Holanda eta Alemaniako maisu batzuekin ikasi genituen teknikak. Gero Iruñeko Aspacen eta umeen ospitaletan hasi ginen lanean. Orain beharbada Suediara joango gara, elbarrituen dantzari buruzko ikastaro bat jasotzera.

— Zaila da horrelako ekimen bat aurrera eramatea?

— Ez da hain zaila. Aurrez ere Aita Mennin ibilia naiz hiru urtez dantza irakasten. Ohituta nago, beraz. Azkenaldian ospitaletan dantza irakasteko eskaera handia dago, gaixoentzat ere terapia egokia baita dantza.

— Zein helbururekin joaten dira arrasatearrak zure saioretara?

— Batzuk mugimendu politik ikastera etortzen dira. Beste zenbait gimnasia moduan, eta bada denbora pasa etortzen denik ere.

— Emakumezko gehiago joaten zaizu klaseetara. Zergatik uste duzu?

— Aurten gizon gehiago etorri dira. Mutilek lotsa gehiago dute dantza egiteko.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Film luzeetarako gidoiak egiteko dirulaguntzak. Epea: apirilak 2.

• Film laburrak ekoizteko diru laguntzak. Epea: irailak 20.

■ LANA

• Arrasateko Udalerako gazteria teknikaria eta delinea-antea behar dira. Epea: otsailak 16.

• Andoaingo Udalak hainbat postu bete nahi du: 3 udaltzain, lan eta gazteria teknikaria, ingurugiro teknikaria, liburutegiko arduraduna eta giza baliabide eta zerbitzu orokorretako teknikaria. Epea: otsailak 17.

• Bergarako Udalak administrari eta administrari laguntzaileen lan poltsa eratu nahi du. Epea: otsailak 23.

• Berriozargo Udalerako gazte eragilea behar da. Epea: otsailak 24.

• Azkoiengo Udalak kultura etxeko arduraduna behar du. Epea: martxoak 3.

■ IKASTAROAK

• Euskara zuzpertzaila ikastaroa Urtxintxak eraturik. Epea: otsailak 16.

• Guitransek antolatuta, gidari profesionalen ikastaroa, C edo C2 gida baimena ateratzeko. Garraio astunetan esperientziarik izan ez eta, garraio lanean hasi nahi dutezentzat.

■ LEHIAKETAK

• Arabako festak iragarriko dituen hormirudi lehiaketa. Epea: martxoak 12.

“Azkenaldian ospitaletan dantza irakasteko eskaera handia dago”

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Arrasaten, Cor-doba y Oro kalean. Tel.: 943 79 51 88 / 943 79 86 40

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Garajea aukeran. Tel.: 943 79 80 44 (deitu 09:00etatik 18:00etara).

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

3. Errentan emateko

• Emakume alarguna ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu, Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreratik hurbil dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatu edo osatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 64 04.

• Pertsona bakararentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

5. Etxeak osatzeko

• Bi mutilek etxebizitza merke bat alokatuko genuke. Beste batzuekin osatzeko ere prest egongo ginatke. Tel.: 943 79 89 73.

• Etxebizitza bilatzen ari gara. Tel.: 943 71 42 39 (deitu 18:00etatik 21:00etara). Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logelak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldea erabiltzeko eskubi-dearekin). Tel.: 943 79 05 26.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai Kurtzetxiki kaleko 36an (San Andres auzoan). Tel.: 943 79 41 68 (Andoni).

• Garaje toki bat saldu nahi nuke Munarren. Tel.: 943 79 44 07.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean, 25m²koa (bi autorentzako lekua dauka). Tel.: 943 79 69 41 (Mari).

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Enpresentzako lekuak daukagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

14. Errentan emateko

• Aretxabaletan taberna bat alokatu dago. Interesatuak berandu deitu 943 79 01 47 telefonora. (Joxe).

• Denda bat alokagai Arrasaten. Tel.: 943 79 08 70.

• Artista: zure obra gauzatzeko toki lasai eta barea behar baduzu, Arrasate hurbil, Deba Garaian tailer bat daukat elkarekin erabiltzeko. Tel.: 943 71 42 86.

• Ile apaindegia eta edertze aretoa alokatzeko. Santamainan, 14-behea. Tel.: 943 79 73 43 (Mertxe).

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal merke bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 86 08. (Jon).

• Lagun talde batek lokal bat alokatuko luke, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 (Iker). Deitu 21:30etatik aurrera.

• Lagun talde batek hutsik duzun txoko hori alokatuko luke. Tel.: 943 79 65 31.

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943

79 40 65 (Maitane).

LANA

17. Eskaintzak

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

• Neska prest sukalde laguntzaile bezala lan egiteko edo taberna nahiz jangelako zerbitzari gisa. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 73 42. Beatriz.

• Esperientziadun andra gertu etxeko lanak egiteko orduka. Tel.: 943 79 11 46 (asteburuetan deitu).

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jatzetxe edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

18. Eskaerak

• Esperientziadun andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 629 263 945 (20:00etatik aurrera).

• Jatetxe batean zerbitzaria behar dugu asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 95.

• Emakume arduratsua behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 37 73 (13:00etatik aurrera).

• Euskaraz hitz egiten dakien pertsona baten bila nabil, elikadura denda baterako. Bezero asko ditugu. Tel.: 943 79 96 39 / 941 60 81 79. (Fernandez galdetu).

• Alemana ikasi edo hobetu nahi duzula? Alemanian familia jator batekin lan egin nahi baduzu au-pair bezala, deitu 943 79 62 17 edo 004961 542461 telefonoetara.

• Pertsona bat behar da kirol denda batean lan egiteko. Bidali datuak 259 posta kutxatilara.

• Neska euskalduna behar dugu azokan, ostiral goizetan eta asteburuetan izotz denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 05 98 (09:00etatik 13:00etara deitu).

• Emakume euskalduna behar da 08:30etatik 10:30ak bitartean etxeko lanak egin eta emakume bat zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Pertsona euskalduna behar da egun

erdiz etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Enpresa Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoentzat. Tel.: 943 79 06 39.

• Irakasle ikastetetan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu. el.: 943 79 35 24.

21. Eskaerak

• Gastelaniazko eskola partikularrak hartuko nituzke. LOGSE 1. eta 2. mailatan. Tel.: 943 79 79 12

MOTORRA

23. Saldu

• Fiat 1 Turbo salgai. 118 cv. 1991 urtekoa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50.

• Renault 11 GTX salgai. Tel.: 943

79 69 13.

• Renault 5 Turbo salgai. Tel.: 943 776 38 84.

• Ford Courier 18D salgai Matrikula: SS-AN Tel.: 943 79 82 09.

• Golf GTI salgai. Sei urte ditu eta egoera onean dago. Tel.: 608 771 732.

• Trialerako Aprilia Climber salgai. 280cc³, egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Volkswagen Golf bat salgai. GTI 16v. SS-AD matrikuladuna. Tel.: 943 77 16 46 (20:00etatik aurrera).

DENETARIK

26. Saldu

• Gela bat eta sofa-ohel bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 41 26.

• Tabako makinak salgai, 100.000 pta. baino gutxiagotan. Tel.: 943 79 87 79 (Maite).

• Auto barruan eramateko haur-aulkia salgai. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

• Inauterietarako animalia mozorroa salgai 3-4 urteko haur batentzat. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

• Zeharkaldietarako eskiak salgai. Oholak: Rossignol Nepal, 1,70 cm.koak. Fijazioak: Silvretta 404. Tel.: 943 79 51 79. Gaeuz.

• Eskiak salgai (6-9 urteko haurrentzat egokiak). Oholak: Tecno, 1,50 cm.koak. Fijazioak: Salomon 137. Tel.: 943 79 51 79. Gaeuz.

• Egoera onean dagoen Fagor markako ur termo salgai. Oso merke. Tel.: 943 79 13 54.

• Bideokonsola salgai, bi kartutxoekin. Megadrive. 10.000pta. Tel.: 943 79 91 77.

• Game Boy bat salgai Tetris eta Stargate jokoeekin. Egoera onean. 5.000 pta. Tel.: 943 79 13 96. (arratsaldetik edo gaeuz).

• 150 litroko eta bi akumuladore dituen termo ur berogailua salgai. Tel.: 943 76 44 96.

• Hozkailu txiki bat saldu nahi dut. Modu onean. Tel.: 943 79 22 21 (15:00etatik aurrera).

• Yamaha gitarra elektrikoa salgai. Gutxi erabilia. Tel.: 943 79 71 30 (Aitor).

• Eskiatzeko bular babesa salgai. Oso egoera onean. Neurria, XXL. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• Volkswagen Golf baten eskitegiak salgai. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• XR2 baten llantak salgai, estalki eta guzti. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

29. Eman

• Koltxoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugu eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdian deitu.

32. Aurkitu

• Haur baten urrezko eraztuna aurkitu dut. Izena darama. Tel.: 943 71 47 05.

33. Bestelakoak

• Tarot, kiromantzia. Lehena, oraina eta etorkizuna. Argitu zure zalantzak. Tel.: 689 93 60 58.

adi egon!

GIDA 99 - Leintz Bailarako
Gida Komertziala
zure postontzian aurkituko duzu.

AURTEN ERRAZAGO,
TELEFONO GUZTIAK
AURKIBIDE
ALFABETIKOAREKIN

Ez baduzu jasotzen edo akatsik aurkitzen baduzu, dei egin 943 77 08 15 telefonora edo zuzenean ARKOr a etorri.
Otalora Lizentziatua, 31 - ARRASATE

Bederatzi, gure telebista jantzi

ATBk egin dituen bederatzi urte hauetan *Berriak* izan da, seguruenik, gure telebistaren izartegiko izarririk distiratsuen, arrasatearrek kontu handiz begiratu izan dutena. Beroi izan da, gainera, ATBren bandera ontzia urte hauetan.

Telebista sortu zutenek garrantzi handia eman zioten albistegiari eta arreta handiz aukeratu zituzten aurkezleak. 1989ko neguan Monterron jauregian egin ziren hauta probak eta hiru aurkezle ateratu ziren: Koldo Rodriguez, Begoña Garai eta Aitor Sarasua.



Koldo Rodriguez.



Begoña Garai.



Aitor Sarasua.



Jon Andueza.

KOLDO RODRIGUEZ

Koldo izan zen *Berriak* albistegiak izan zuen lehen aurkezlea. San Viator Ikastolako irakaslea zen eta berebiziko zaletasuna eta profesionaltasuna erakutsi zituen bere borondatezko lanean. Eskolak eta bilerak amaitutakoan etortzen zen testuak ikastera eta prestatzera.

BEGOÑA GARAI

Koldoren alternatiba. San Frantzisko Xabier Ikastolako irakaslea zen eta eskola lanak bukatutakoan etortzen zen. Bien artean seriotasuna eta sinesgarritasuna eman zioten albistegiari.

AITOR SARASUA

Koldok eta Begoñak ezin utzizko konpromisoak zizutenean Aitor etortzen zen, beti bezain ausart eta prest. Behin pirataz mozorrotuta aurkeztu zuen albistegia, Haratuzte garaian.

JON ANDUEZA

Kirolak aurkezten trebatu zen Jon kamera aurrean. Gazte-




Rosa Mondragon.




Mainer Egues.



Marian Porcel.



Patxi Montero.



Iñaxio Olaizola.



Naiara Gorroño.

tasuna eta ilusioa ekarri zituen. Ordurako antzematen zitzaion beste toki handiago batera egingo zuela jauzi. Eta hala-xe izan zen.

ROSA MONDRAGON

Berak ireki zituen eguerdie-tako Albiste aurrerapenak. Patxada eta sosegua zerizkion gaur egun Mahai ingurua aur-

kezten duen kazetari aramioarrari.

MAIDER EGUES

Hasi berria zen kazetaritza ikasten *Berriak* aurkezten hasi zenean. Telebistaren aurrean lan egiteko izan behar dena zuen Mainerrek, kamera eta pantaila lagun minak zituen. Epe luze batean bera izan zen ATBren aurpegia.

MARIAN PORCEL

Ez zen erraza Mainerren hutsunea betetzea eta Marianek beste estilo bat ezarri zuen: serioagoa eta sotilagoa. Orduan bezala, gaur ere albisteak lantzen ditu Arrasate Irratian.

PATXI MONTERO

Arrasate Irratian hasi eta Gipuzkoako Herri Irratian lan egin eta gero etorri zen Patxi telebistara. Irratiko esatarien patxada eta erraztasuna zituen.

IÑAXIO OLAIZOLA

Patxi eta Naiararen arteko igaraldia betetzeko sartu zen eta ganoraz bete zuen bere lana. Gaur egun Musiklasik aurkezten du, Marta Izagirrerekin batera.

NAIARA GORROÑO

Honek ere lagun zituen kamera eta pantaila. Zerbait berezia zuen. Gaztea izan arren, sinesgarritasun osoa zuen albisteak esateko orduan.


Hamar aurkezle aritu dira ATBn bederatzi urte hauetan zehar. Batzuk borondatez eta beste batzuk profesional gisa. Denek utzi dute beren marka eta oroimen ona. ATB harro dago guztien lanarekin. Eskerrik asko denoi!

ATB eta Haratuzteak ikusmiran

Arrasate Telebistak bederlatzi urte bete dituela eta, ATBk saio berezia prestatu du hilaren 12rako. Marijo Deogracias kazetariak aurkeztuko du.

Elkarrizketatu egingo ditu sasoi batean ATBn ibili eta gaur egun beste tokietan diharduten kazetariak eta teknikariak: Anne Igartiburu, Anuska Lasa, Maider Egues, Andoni Urzelai, Iban Aiesa... ATBko albistegiak aurkeztu dituzten kazetarien berri ere emango da. Herritarren iritziak jasoko dira, bederlatzi urte hauetan kamera aurrean egin diren hankasartzerik bitxienak erakutsiko dira eta etorkizunari begira ATBk dituen erronkarik handienak azalduko ditu Aitor Orobengoá Arkoko lehendakariak.

Ordu erdiko saioa izango da, gaueko 21:30etan emango dena.



Beñardo Kortabarria eta Maria Agirre saio berezi bat aurkezten.

HARATUZTEAK
Asteartean, hilak 16, Hara-

tuzteei buruzko saio berezia egingo da, Maier Urangak

aurkezturik. Igandean Aretxabaletan egingo diren ekitaldien berri emango da eta baita Arrasaten asteartean bertan egingo direnena: Takolo, Pirritx eta Porrotx, Samasiku fanfarrea, Auskalo taldea, Erraldoiak eta Kilikiak... eta kaleko giroa.

Saio hau ere ordu erdiko izango da eta gaueko 21:30etan emango da.

J. LARRINAGA OLINPIKOA

Asteleheneko Mondrasport saioan Itxaro Zubillagak Joseba Larrinaga atleta paralinpikoa izango du aurrez aurre. Joseba seigarren izan da Portugalen jokatu den Munduko Kros Txapelketan. Atlantako Joko Olinpikoetan ere izan zen atleta bikain hau. Astelehenean, gaueko 21:30etan.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 13	ASTELEHENA, 15	ASTEARTEA, 16	ASTEAZKENA, 17	OSTEGUNA, 18	OSTIRALA, 19
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta ATBk 9 urte</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 ATBk 9 urte</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillagak aurkezturik. Aste honetan Joseba Larrinaga atleta izango da.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Haratuzteak 99. Haratuzteen inguruko saio berezia Maier Urangak aurkezturik.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Haratuzteak 99 (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:00 Haratuzteak 99 (errepika).</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Haratuzteak 99 (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezekin.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Astebete Albistegian aste-ko notizia garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osak aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai (errepika).</p>
<p>IGANDEA, 14</p> <p>13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta ATBk 9 urte</p>	 <p>Itxaro Zubillaga.</p>	 <p>Maier Uranga</p>		 <p>Iban Gonzalez.</p>	



Besaidearren futbol taldeari 1956an atera zitzaion argazki hau. Zaldispenn daude, partida jokatu aurretik, Cerrajeran hain zuzen ere.

Goian tente ezkerretik hasi-

ta: Jose Luis Azkoaga entrenatzailea, Pedro Uribarren, Anton Bidaburu, Jose Luis Mondragon, Benito Abarrategi, Bernardino Herrarte, Jokin Iria eta Bitoriano Lasaga daude.

Behean makurtuta ezkerretik eskumara: Javier Iria,

Jose Ignacio Mondragon, Karmelo Mendarozketa, Luis Maria Agirre, Esteban Eguren, Karmelo Herrarte eta Ignacio Orue.

*Argazkia eta berriematea:
Gau-Txori taberna*

Oharra:

Nahi baduzu etxean duzun aspaldiko argazki eder hori Arrasate Pressen argitaratzea, ekarri geuri eta aterako dizugu.



5
urteko
bermearekin

Ordezko
piezako
24
ordu

Laguntza
errepidean
24
ordu

© 900 30 80 80

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 943 79 00 11
Mekanika eta karrozeria: Tel.: 943 79 75 64

Lehenengo gizakia, gero makina

Arrasateko Herri Eskola

Guztiona. Gustukoena.

- Garraioa dohain
- Jangela subentzionatua

Matrikulatze epea:
Otsailaren 1etik 12ra arte



San Andres: 943 79 20 69



Erguin: 943 79 77 74



Musakola: 943 79 04 49



Institutua: 943 79 44 47

LA MERCED TALDEA (Arrasate - Eibar - Gasteiz - Leioa - Zumarraga)

Esperientzia handiena profesional hoberenekin.

Kalitatea

HAUR hezkuntza
LEHEN hezkuntza
D.B.H.
1etik 16 urterarte

Familiari bizimodua errazten diogu.

ORDUTEGI
MALGUA
07:30etatik 18:00etara

Erraztasuna

Zerbitzu goxo-goxoa.

Zerbitzua

JANGELA
550 Pta.
Eguneko.

Behar baduzu, gerturatuko zaitugu.

AUTOBUSA
5.000 pta.
Hilean


Esku-eskura

Espezialistarik hoberenak txikientzako, prezio txikian.

Prezioa

HAURTZAINDEGIA
1etik 6 urterarte
6.000 pta. Hilean.

GEHIAGO
GUTXIAGOGATIK



la merced
IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73 Faxa: 943 79 20 97 ARRASATE